

500 pezeta.
20 libera

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

35

Inauteriak
gaia

Maria Pilar
Ochoa de Eribe
elkarrizketa

Euskara
zine aretoetara
Gehigarria

Idazkera eta grafia
ekarpena

1999ko OTSAILA

Argitaratzailea:

XANGORIN

Zirkuitu Ibilbidea,
2. Pabilioia. 20.160
LASARTE-ORIA
GIPUZKOA.
Tel: 943/ 37.15.45
Fax: 943/ 37.34.03

Lege Gordailua: SS-1001/95
ISSN: 1135-4690

Koordinatzailea:
Jose Mari Auzmendi

Erredakzio burua:
Ainhoa Azpiroz

Erredakzio batzordea:
Itziar Barriola, Mikel Estonba,
Arantxa Goiburu,
Mari Karmen Irastorza,
Kristina Mardaraz,
Josi Oiarbide, Juanjo Otaño,
Fito Rodriguez, Maite Saenz,
Xabier Sarasua eta
Arantxa Urbe.

Aholkulariak:
Imanol Agirre, Begoña Bilbao,
Mariam Bilbatua, Xabier Isasi,
Irene Lopez-Goñi,
Izaskun Madariaga,
Kepa Perez Urraza,
Lore Erriondo,
Lontxo Oihartzabal eta
Pruden Sudupe.

Diseinua:
Zart

Maketazioa, fotomekanika:
Xangorin.

Inprimategia:
AN^tZA S.A.L.

Azaleko argazkia:
Ikor Kotx
(Zubietako joaldunak)

Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailak Onetsia
1.999/I/26

Kopurua: 3.500 ale

5 **editoriala**

6 **kronika**

8 **gaia**

Inauteriak

Non, zer eta noiz

15 **elkarrizketa**

Maria Pilar Ochoa de Eribe

21 **gehigarria**

Euskara zine aretoetara

Tinko Euskara Elkarte

29 **Esperientzia**

Urarekin jolasten

Arrasateko Umezaintza Haur Eskola

32 **Erakundeak...**

Informazio Bulegoa gurasoentzat

Hezibideko ikastolak

34 **Hauteskunde sindikalak**

35 **Berriak**

39 **Ekarpena**

Grafia eta idazkera aztergai

Irune Ibarra

COUNCIL OF EUROPE-
CONSEIL DE L'EUROPE



Strasbourg
1996ko maiatzaren 22

Aldizkari honek "aipamen berezia" jaso du Europako Kontseiluaren "lurraldeen arteko lankidetzarako sustapena" programaren barruan.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizueke

hik hasi ez ditu bere gain hartzen laguntzaileek plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



fundazioa
fundación

hik hasik

Zure harpidetza behar du



4.500 pezeta urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

Zure partehartzea ezinbestekoa zaigu

harpide zaitez!

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....
 2. DeituraTel.:.....
 HelbideaPosta Kodea.....
 Herria.....Herrialdea.....
 Ikastetxea.....Herria.....
 IFZ

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne)

Hego Euskal Herria
4.500 pezeta
Ipar Euskal Herria
180 libera

hik hasi

Euskal heziketarako
aldizkaria

Industrialdea, 2. Pabilioia
20.160

LASARTE-ORIA.
GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 15 45
Faxa: 943/ 36 10 48

Hauteskunde sindikalak hausnarke-
tarako arrazoi dira.

OTSAILA

e d i t o

r i a l a

B

urutzear daude hauteskunde sindikalak EAEn.

Nafarroan, aldiz, ikastoletan soilik egin dira, irakaskuntza publikoan eta pribatuan ekaina bitartean egiten arituko direlarik.

Iparraldean hauteskundeek beste ukitua dute. Bertako sindikaturik ez izatean, ikastoletan esaterako, sindikatu gabeko langileen ordezkaritza hautatzen baita.

Hego Euskal Herrira itzuliz, aldaketa nabarmenak gertatu badira ere, orokorrean, lehengo gehiengoak mantentzen direla esan daiteke.

Ikastoletan, Nafarroan nahiz EAEn LABek mantentzen du nagusitasuna, Lan Hitzarmenetako negoziazio mahaiak ELAekin batera osatuko dituelarik.

Irakaskuntza pribatuan, ELAren nagusitasuna izugarria da EAEn kasuan, Nafarroan SEPNA eta UGT aurreratzen diren bitartean.

Irakaskuntza publikoan, Nafarroan egin ziren azkeneko hauteskundeetan EILAS izan zen lehen indarra eta datorren maiatzean burutuko diren nor izango den jakiteke dago. EAEn egin berriak dira eta gertatu diren aldaketak kontuan izanik, hausnarketa egitea merezi duela uste dugu.

Unibertsitatean hautatu direnak kontuan hartzen baditugu, ELA izango litza-

teke lehen indarra, eta ez unibertsitateak bakarrik zenbatuz gero, LAB. Bi sindikatu hauen igoera nabarmena izan da eta negoziazio mahai guztietan, orain arteko dinamikari eusten badiote behintzat, EILAS sindikatuarekin batera gehiengo mantentzen dute.

Dena den, bada aipatu gabe geratu ezin den gertaera, CCOOek irakasle funtzionarioen artean izan duen gorakada nabarmena. Sindikatu honek "destino osagarrien" errekursoa irabazi zuenez, igoera izango zuela espero zitekeen. Baina hirugarren indarra izatetik ordezkaritza bikoiztu eta lehenengo indarra izatera pasatzea pentsa ezina zen.

CCOOn igoera errekursoarengatik bakarrik izan al da? Guk ez dugu uste. Zer arrazoi egon dira funtzionarioen artean liderra bihurtzeko? Ez al dute irakaskuntza eredu konkretu baten defendatzailetzat hartu? Betidanik eskaini diguten Eskola Publikoaren buru, zehazki?

Zer norabide hartuko den denborak esango du. Bitartean, irakaskuntza demokratizatzeko, parte hartzea bermatzeko, euskalduntzeko eta herritarren etorkizun aske baten alde lan egiteko Euskal Herri dagokion Euskal Eskolaren lorpenaren aldeko ahaleginetan jarraitu behar dugu. Ateak inori itxi gabe, gurekin batera lan egin nahi duen orok bere tokia izan dezan. Ba al da beste biderik?

*Sindikal-
gintzak
ere, lagun
dezala
dagokigun
eskola
lortzen*



Lanpostuak, soldatak, erreforma, hizkuntza, ereduak...
dena mugimenduan dabil

k r o n



DBH eta Batxilergorako aldaketa proposamena

Nafarroako Eskola Kontseiluak DBH eta Batxilergoko Humanitateen irakaskuntza izeneko txostena egin du berriki. Bertan Giza Zientzien irakaskuntza hobetzeko 14 proposamen egi-ten dira. Horietako bat DBHko ikasgai kopurua gutxitzea da. Gaur egun hamar ikasgai daude Nafarroako DBHko kurso bakoitzean eta kopuru horrek zortzi baino handiagoa ez luke-ela izan behar diote txostenaren egile-ek. Ikasgaiak gutxitzeak bi ondorio positibo ekarriko omen lituzke. Alde batetik, ikasle bakoitzaren jarraipen zehatzagoa egiteko aukera. Eta beste-rik, ikasgai bakoitzari ordu gehiago

egokituko litzaizkioke, horrela ordu gutxi dutela-eta bigarren mailako bihurtu gabe.

Beste proposamen bat DBHko bigarren zikloan eta Batxilergoan 32 orduko astea izatea da, eta ez 29koa, orain bezala. Zabalpen honek behar sozialen araberrako aldaketak egiteko aukera emango lukeela diote txostenaren egi-leek. Adibidez, bigarren hizkuntza bat beharrezko bezala jartzeko aukera egongo litzateke.

Bestalde, Kultura Klasikoa indar-tzea ere proposatzen da. Horrela, DBHko 3. mailan aukerakoa den Kul-tura Klasikoa derrigorrezkoa izatea planteatzen dute, ordu kopurua 32ra igoz posible delarik.

Ordu kopuruak eta ikasgaiak ezezik, Batxilergoaren iraupena ere aldatzeko proposamena luzatzen dute. Orain bi urtekoa izanik, urtebete luzatzea hobe dela diote, etorkizuneko unibertsita-rioen eta goi teknikoen prestakuntza hobe, sakonagoa eta osatuagoa izan dadin.

Txosten hau aztegai izango da hemen-dik aurrera eta behin-betiko txostena bozkatu aurretik eztabaidatu egingo da. Dena dela, txostena ez da loteslea eta azkenik Hezkuntza Departamen-tura bideratuko da.

Euskararen ofizialtasuna aldarrikatuz

Sei mila lagun bildu ziren Baiona urtarrilaren 30ean Euskal Departamendua eta euskararen ofizialtasuna aldarrikatzeko. Abertzaleen Batasuna deitutako manifestaldiak atxikimendu ugari izan zituen, eta tartean Seaskarena. Aldarrikapen orokorrek-in batera, Seaskak ikastolentzat estatuto publikoa eskatu zuen. Ofi-zialtasunaz gain, euskarak premiaz-koa duen presentzia eta erabilpen publikoa ziurtatzeko lege baten beharra dagoela ikusten dute.

Euskararen ofizialtasun ezak kal-te handia egiten dio oraindik ere haurrak euskalduntzeko ahalegina-ri. Horrela, frantsesez ikasteari eki-ten dioten haurrak gehiago dira. Dena dela, eredu euskalduna auke-ratzen duten haurren kopurua han-ditzen doa pixkanaka-pixkanaka. Emaitza hori ikastetxeetan egiten ari den lanaren fruitu da, baina Euskal Departamendua edukitzeak ere bultzada handia emango dio, dudarik gabe. Ea hemendik aurre-rako pausoek zerbait argitzeko eta aurrera jotzeko balio duten.

“Nire berezko hizkuntzan murgilduta, nire arbasoen hizkuntzan murgilduta alafede, iristen naiz gozamen kulturalaren gailurrera”.
(HASIER ETXEBERRIA)

h i k a

Ez da oposaketarik izango Nafarroan, bai ordea EAEn

Hasiera batean Nafarroako Gobernuak ikasturte honen amaierarako irakaskuntzako lanpostu publikoetarako oposaketak egiteko asmoa bazuen ere, azkenean data hori datorren urtera arte luzatuko da. Nafarroako Gobernuak eta sindikatuek egindako bileraren ostean hartu zen erabakia. Sindikatuak lan eskaintzak egitearen alde agertu ziren eta aurten egitea ongi ikusten zuten. Baina irakasleriaren gehiengoaren iritzia aintzat harturik, ongi ikusi dute epea atzeratzea. Izan ere, irakasleen gehiengoaren ustez, ez zegoen behar hainbat denbora uztailean egitekoak ziren oposaketak prestatzeko.

Hezkuntza departamenduak sindikatuari hurrengo hiru urteetan 477 lanpostu ateratzea proposatu zien eta sindikatuek ongi ikusi zuten Hezkuntza departamendua lanpostu horien beharraz jabetzea. Honek 2000 eta 2001. urteetan lanpostu horien eskaintza negoziatzeko ateak irekita uzten dizkie.

EAEn, berriz, Inaxio Oliveri Hezkuntza sailburuak adierazita koaren arabera, Lanpostu Publikoen Eskaintza egiteko asmoa dute. 1999. urteko azken hiruhilabetean egitea aurreikusten dute, eta 2000. urtean iragankortasun egoera honekin amaitzea.

Epeez hitz egin baldin bada ere, oraindik ez da gainontzeko ezereen berri eman.



Destino-osagarrien epaia irakasleen alde: 8.000 milioi irakasle funtzionarioentzat

Urtarrilaren 7an EAeko Auzitegi Gorenak irakasleen aldeko epaia eman zuen destino-osagarrien auzian. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzak sare publikoko 19.000 irakasleri 1994z geroztik zor dizkien 8.000 milioi pezeta ordaindu beharko dizkie. Destino-osagarrien ezaugarria dela eta, sare publikoko irakasle ez unibertsitarioek Lakuako gainontzeko funtzionarioek baino gutxiago kobratzen zuten, eta horixe da auzi honetan salatu zutena. Orain, auzia irabazi ostean, sindikatuak Hezkuntza Sailarekin bildu dira eta berriz ere elkartzekoak dira irakasleei zor dien diru kopurua eta ordainketa epeak

zehazteko. Era berean, ordainketa hori irakasleria osora zabaltzea eskatzen dute sindikatuek, funtzionario zein ez funtzionarioei.

Baina dirua ez da guztien kezka. EKB eta EHE euskarazko irakaskuntza bultzatzeko kanpainan murgildu dira matrikulazio garai honetan. EKBren leloa “Etorkizuna euskaraz dator. Matrikula ezazu euskaraz D ereduan” da eta ekimen bereziak antolatu ditu gurasoek seme-alabak D ereduan matrikula ditzaten. Behin eta berriro errepikatu dute euskaldundu ahal izateko berma bakarra D ereduan matrikulatzea dela.

EHEk, berriz, A ereduaren aurkako kanpainari ekin dio “Euskararen herrian analfabetorik ez!” lelopean. A ereduaren eskaintzen duten ikastetxeetako zuzendariei gutun bat bidali diete, aurtengo ikasturtea eredu hori eskaintzen duten azkena izan dadila eskatuz eta asmo hori Hezkuntza Sailari helarazteko eskatuz, honek dagozkion neurriak har ditzan. Ikasturte honetan langileria prestatzeko eskatzen diete eta zentro barruan eztabaida zabaltzea.

A ereduaren baztertzeko arrazoi nagusi hauek aipatzen ditu EHEk: legez kanpokoa, baztertzaila, zigortzaila eta marjinala dela, iruzur egiten duela, ez duela eleaniztasuna bermatzen eta gizartearen babesik ez duela.

GAIA

Inauteri

Ihauteri, inauteri, aratuste, karnabal, zanpatzar... modu askotara deituak izan dira mozorroz, musikaz, dantzaz,

janariz eta edariz bustitako egun hauek. Euskal Herriko herri askotan ospatzen diren egunak dira, abenduan hasi eta martxora arte.



a k



Non, zer eta noiz

Tradizio katolikoa duten lurraldeetan, garizuma aurretik egiten diren olgeta-egunak dira, bereziki Hausterre-egunaren aurreko igande, astelehen eta asteartean. Baina inauterien esanahia ez da berdina izan historian zehar.

Hasieran, gaur egun udaberria den garaian ospatzen zen. Garai horretan hasten zen urte berria, eta ez orain bezala, urtarrilean. Horrela, urte zaharra bukatu eta berria hastea ospatzen zen jai hauekin. Olentzero, Miel Otxin, Zanpatzar... eta beste hainbat pertsonaia erre egiten ziren. Urte zaharraren kutsadura kendu egin behar baitzen, garbitu, eta modu horretara egiten zuten, hainbat pertsonaia errez.

Erdi Aroan, berriz, Eliza Naturaren gainetik jarri zen eta inauterien zentzua aldatu egin zen. Elizak Bazkoari eman nahi izan zion garrantzia, Kristoren Pizkundeari. Urtea hasten zen garaian jarri zuen Bazko eguna, hots, udaberriari. Eta inauteriak Garizuma aurrera pasa zituen. Horregatik, gaur egun inauteriak ez dira ez urte hasieran, ez eguzkiaren ez ilargiaren egutegian ospatzen, urte hasiera bien tartean baizik.

Egunak aldatzeaz gain, Elizak inauteriak berak ere aldatu zituen lege gogorrek ezarri. Jaiaren aitzakiaz gertatutako gehiegikeriagatik, ez zituen begi onez ikusten. Estatu espainolean ofizialki debekaturik egon ziren Francoren diktadura bitartean. Ondorioz, inauteriek Eliza bera satirizatuko dute, jasaten duten errepresioari erantzunez, nolabait.

Gaur egun inauteriak urtean zehar jantzi ditugun maskara edo karatula

guztiak erantzeko erabiltzen dira. Inauterien zentzua liberazioarena da. Batzuk aspaldiko elementu sinbolikoak gorde dituzten inauteri folklorikoak dira eta beste batzuk hiriko inauteri modernoak.

Beraz, denboran zehar inauteri egun hauen zentzua aldatu egin da. Hala ere, hainbat eta hainbat herritan garai bateko pertsonaiak eta ohiturak mantentzen dira. Gure proposamena zentzu horretan doa. Euskal Herriko hainbat herritan ospatzen diren inauterien berri luzatu nahi dizuegu. Bertara hurbiltzeko aukera aprobeztatu nahi baduzue, jakin dezazuela noiz joan eta zer ikusiko duzuen.

Zuberoako maskaradak

Zuberoako **Maskaradak** urtearen hasieratik Astearte Inauteri eguna bitartean ospatzen dira. Maskaraden elementu nagusia dantza eta antzerkia dira. Egun eta herri ezberdinetan eskaintzen dute funtzioa.



Maskaradako Zamaltzaina

Maskaradako pertsonaiak bi taldetan banaturik daude: gorriak eta beltzak. Lehenengoak garbi eta dotore jantzita egoten dira eta gorria da euren arropetako kolore nabariena. Talde honetakoak dira **Txerrero, Artzaina, Gatzain, Kantiniersa, Zamaltzain, Zikiratzaileak, Ferratzaileak, Kukuleroak, Jaun eta Anderea, Laboraria** eta **Etxekoandrea**.

Gorrien taldearen ondoren musika-riak joan ohi dira eta hauen atzetik beltzak. Zarpain eta zikin jantzita joaten dira talde honetakoak: **Ijitoak, Berzkinak, Zorrotzaileak, Eskaleak...**

Maskaraden antzezpena egun osoan zehar luzatzen da. Goizean, herrira iristean, gorriak dantzan eta beltzak bazterrak nahasten hasten dira kaleetako barrikadak gaintuz. Herriko pertsonaia garrantzitsuak edo ospetsuak bisitatuz ibiltzen dira. Bitartean, beltzek Zamaltzaina amorrarazten dihardute eta Zikiratzaileak ere harrapatu nahian dabilta.

Enparantzara heltzen direnean gorriak dantzak egiten hasten dira. Dantzarik nagusiena **Bralia** eta **Gobalet-dantza** (baso ardoaren gainera salto egiten dena) dira.

Dantzaren ondoren funtzioak datoz. Zati honetan, pertsonaia bakoitzak bere ofizioa antzezten du: Ferratzaileek Zamaltzain eta Txerrero ferratzen dituzte, berauek nahi ez badute ere; Zikiratzaileek Zamaltzain harrapatu eta irendu egiten dute; Zorrotzaileek Jaunaren ezpata zorrotzuko dute behin eta berrero, Jauna gustura gelditu arte; ijitoek istorio eta entretenigarriak kontatuko dituzte; eta azkenik, Berzkinak

Jaunak konpontzeko emandako dupina ezin konponduta utziko dute. Hala ere, Jauna engainatu eta dirua aterako diote... Azkenean, medikua ekarri eta honek salbatuko du Jaunak emandako dirua lapurtu duen langilea, patroï eta ijitoen artean harrapatu eta erdi hilda utzi dutena.


Antzezpena amaitzeko, guztiek parte hartzen duten dantza egiten dute.

Urtero-urtero herri ezberdin bateko herritarrek prestatzen dituzte Maskaradak, eta aurten Iduze-Mendikoei egokitu zaie. Mauletik bospasei kilometrorra dagoen herri honetan orain dela 70 urte antolatu ziren Maskaradak azken aldiz. Aurten berriro iduze-menditarak izango dira protagonista.

Nafarroa Behereko ihauteriak

Nafarroa Behereko ihauteriak dira Euskal Herriko luzeenak, maiatzera arte irauten baitute. Ihauteri hauetan **Kabalkada** izeneko desfilea da oinarri. Bertan hainbat pertsonaiak hartzen dute parte.

Ezagunenak eta ikusgarrienak **Bolantak** dira. Lepotik zetazko koloretako zintak zintzilikatuta daramaten dantzariak dira eta desfilearen amaieran joaten dira. **Zaldikoak** dira lehenengo joaten direnak. Zaldi gainean joaten diren bizpahiru mutil izaten dira. Hauen ondotik **Zapurrak** doaz, bizar beltz eta betaurreko beltzak dituztelarik. Ondoren, bat, bi edo hiru **Makilari** joaten



Nafarroa Behereko Bolanta

dira, bola batean amaitzen den makila luzea daramatelarik eskuan. Atzetik, **Erraldoitxoak**, bi emakume argal, luze eta fin errepresentatzen dituzten panpinak, alegia. Dantzari bik eramaten dituzte sorbalda gainean. Hauen ondoren beste bi dantzari joaten dira, **Gorriak**. Desberdin jantzita joaten dira, besteen nagusi edo gidari direlako. Ondoren, **Banderariak** doaz, bat edo bi, eskuan banderak dituztela. **Basandreak** doaz hurrena eta azkenik, **Bolantak**.

Dantza da Kabalkadan elementu nagusia. Guztira 23 dantza egiten omen dituzte eta 18 pauso inguru.

Antzina, beste Kabalkada batek jarraitzen zion hemen azaldutakoari. Bigarren hau jende zarpail, zikin, eskale eta emagalduez osatua zegoen. **Zirtzikak** ziren talde honetakoak. Aurrekoen itxurak egiten eta hauek irrigarri uzten joaten ziren.

Ustaritzeko ihauteriak

Lapurdiko herri honetan **Kaskarot** eta **Zanpantzar** egunak dira ihauteri egunak. Kaskarot eguna bi igandez ospatzen dute: Igande Ihauterian eta horren aurreko igandean. Etxez etxe diru eskean, jan eta edaten eta etxeetara sartuz ibiltzen dira ihauteri hauetako pertsonaiak. **Kaskarot**, **Ponpiera** eta **Kotilungorriak** dira ezagunenak.

Kaskarotak dira izatez dantzariak. Alkandora eta galtza zuriz janzten dira, galtzen bi alboetan koloretako zintak josita eta gerriko zabal morea. Eraztun batekin lotzen den lepoko gorria eta txapel bordatua izaten dute. Eskuetan bina makilatxo eramaten dituzte. Hamarren bat mutil izaten dira eta hasieran joaten dira, musikariak atzetik dituztelarik.

Ondoren Ponpiera eta Kotilungorriak doaz. **Ponpiera** antzinako bufoien antzera dago jantzita, aurpegian karatula gorria eramaten du eta eskuetan sorgin-artaziak.

Kotilungarriak dira denetan ikusgarrienak, bi direlarik. Gona gorria dute galtza zurien gaintetik, artilezko jaka zuria eta koloretako amantala, honen poltsikoan airera eta jendeari



Ustaritzeko Katilungorria

botatzeko errautsa daramatelarik. Eskuan makila bat eramaten dute, bertatik zintzilik behi-buztana dutelarik. Buruan txano luze piramidala daramate eta gerrian zintzarri ugari. Aurpegia tela gorritzko maskara batez estalia edukitzen dute, ahoa eta begiak bistan dituztelarik. Pertsonaia hauek haurrak izutzen ibiltzen dira eta etxeokoe emandako eskudirua ere biltzen dute.

Guztiak sei orduz ibiltzen dira etxez etxe, eta ondoren, txokoren batean biltzen dira jasotakoa jatera.

Astearte Ihauterian, berriz, **Zanpantzar** (Saint Pansart) agertzen da gurdi batean Ustaritzeko kaleetan zehar. Las-toz betetako panpina handia da. Herrian zehar ibili ondoren epaitu, kondenatu, fusilatu eta erre egiten dute.

Tolosako inauteriak

Tolosako inauteriak ospe handikoak dira. Ez dira herri txikietako inauteriak bezalakoak, hiri handietakoekin antza handiagoa dute. Izatez Igande Inauteri egunean hasten dira eta Astearte arte irauten dute. Hala ere, aurreko hiru egunak, hots, Ostegun Gizen, Ostiral Mehe eta Zaldunita bezpera prestaketa egunak izaten dira. Txilabak, txaranga, danborrada, zezenak, dantzak, musika eta umorea present izaten dira egun hauetan. Eta hortik aurrerako hirutan, are eta gehiago.

Asteartean aldatzen da giroa, egun hori hileta eguna izaten baita. Sardina ehorzten dute eta denak lutu-jantziekin

joaten dira. Amaiera triste honekin bukatzen dira musikaz eta festaz betetako bost egunak.

Abaltzisketako inauteriak

Abaltzisketa eta inguruko beste herrietako inauteriak (hala nola Amezketakoak, Berastegikoak, Berrobikoak, Elduaiengoak eta Lizartzakoak) Tolosako inauterien itzalpean gelditu dira. Baina hala ere, azken urteotan berriro indarra hartzen ari dira.

Abaltzisketako **txatxoak** Igande Inautez ibiltzen dira baserri baserri. Etxe atari guztietan makila-dantza egiten dute moztorro batek lekua garbitzen duen bitartean. Txatxoak zortzi mutil dira, alkandora eta galtza zuriz jantzitakoak. Borla zuriko txapel gorria, gorbata beltza eta antzinako ezkon-mantoi koloretsu biz osatzen dute janzkera. Besoetatik behera kolore askotako zintak ere eramaten dituzte.

Mundakako aratusteak

Mundakako aratusteetan mutil eta gizonak izan dira protagonista orain arte, nahiz eta azken urteotan emakumeen parte hartzea gehitu.

Musika joz eta abestuz ateratzen dira kalera Igande Inauterian. Zuri-zuri jantzita joaten dira guztiak, musika-bandaren zuzendaria izan ezik. Frak beltza eta kolore berdineko kapela eramaten ditu honek. Musikariek burkazala jantzen dute buruan, batzuetan aurpegia bistan utzita eta beste batzuetan aurpegia estalita. Aurpegia bistan daramatenek bibote eta papilote handiak margotzen dituzte aurpegian.

Bi gona jantzen dituzte, bata ohi bezala eta bestea burutik sartuta, atorra balitz bezala. Horregatik deitzen zaie **Atorrak**.

Herriko kaleetan kantatzen jardun ondoren, portura abiatzen dira zuzendararen gidaritzapean. Han, petril gainera igo eta banan-banan ileran jartzen dira, bertan burutzen dutelarik ekitaldirik ederrena. Urtero asmatzen duten kanta berria abesten dute, eta horrekin batera aureko urtetako abestiak ere bai.

Egun honetan, beste herri batzuetan

GAIA

Inauteriak

Non, zer eta noiz

bezala, Mundakan ere ogi xigortuak edo tostadak jateko ohitura dago. Antzina, atorrak balkoietatik sukaldeetara sartu eta etxeakoandreak prestatutako ogi xigortuak lapurtzeko ohitura zegoen.

Mundakako emakumeak lehen moztorroren ez baziren ere, orain **lamia** jantzita ateratzen dira herriko kaleetara.

Markinako inauteriak

Bizkaiko herri honetan gaur egun Igande Inauteriz ospatzen dira inauteriak. Lehen osteguneguz hasten ziren, **Txitxiburduntzi** Egunez eta **Martitzen Karnabal** egunez amaitu. Baina gaur egun, igandea da egun handiena. Herri osoa moztorroren da eta goiz goizetik giro berezi bizitzen da. Goizean Saragi-dantza egiteko ohitura dago, eta arratsaldean, berriz, Markinako inauterien berezitasuna den **antzara-jokoa**.

Antzarak lotu eta gorputza koipetu ondoren, soka batetik zintzilikatzen dituzte. Zaldiz doazenak, gelditu gabe, antzararen lepoa moztzen saiatzen dira.

Joko honen ohitura hau betidanik egon da Markinan, baina 60ko hamarkadan galdu egin zen. 1979. urtean berreskuratu zen berriro, eta harrez gero urtero ospatu da.



Mundakako Atorra



Lekeitioko inauteriak

Lekeitioko inauteriak osteguneguz hasten dira, Sasikoipetsu egunez. Egun honetan burduntzian erretako haragia jateko ohitura dute. Txistorra, lukainka edota arrautza jateko ohitura zegoen.

Lekeitioko moztorroak **Marmoak** izenez ezagutzen dira. Lehen, igande arratsaldeko elizkizunak bukatu arte ez zen marmorik ikusten. Haurrek kale kantoitik "amaitu da elizakoa" oihukatzen zuten eta hori entzutean kaleak marmoz betetzen ziren. Herria aratuste giroz eta kolore bereziz jantzen zen.

Astelehenetan **Estudiantina** ateratzen zen, galtza eta alkondara zuriz jantzita, jaka urdinez, ezkerreko besotik behera kolorezko zintak zituela eta buruan txapela beltza.

Asteartea izaten da egunik handiena Lekeition, **Turuturu** eguna. Goiz-goizetik marmo jantziz ateratzen dira herrietarrak. Azken urteetan haurren

eguna izaten da. Arrantzale eta nekazari erara jantzen dira. Horrez gain, beste haur asko eta helduak marmoz jantzita ibiltzen dira egun osoz.

Zalduondoko inauteriak

Arabako herri honetan igandean has-ten dira inauteriak. **Markitos** da bertako pertsonaia. Traje beltzez jantzitako panpina da, gorbata daramana eta lorea botoi zuloan. Arrautz oskolez egindako lepokoa darama. Pertsonaia berezi eta misteriotsua da Markitos.

Igande Inauteri goizean, goizeko 11:30ean agertzen da herriko kale nagusian asto baten gainean. Herriko mutil edo gizon bat joaten da asto gainean, Markitosen atzean berari eusten, jaus ez dadin. Astoa horretarako prestatu-riko toki bateraino gidatzen dute, jauregi baten aurreraino. Han, Markitos astotik jaitsi eta sei metro luzerako makila baten puntan jartzen dute. Makila zutik jartzen da, lurrean sartuta eta han goian geratzen da Markitos ordu batzuetan.

Arratsaldean prozesio zaratatsua hel-tzen da Markitos dagoen lekuraino, **Predikadorea** dena buru delarik. Honekin batera, **Kalegarbitzailea** eta **Errauts Zabaltzailea** doaz, biak txabusina beltza jantzita. Hauen atzetik musikariak, eta ondoren behor batek bultzatuko gurdia, barruan Predikadorea dela. Hauen atzetik **Astoa** eta **Agurea** deitzen direnak joaten dira. Markitosen aita eta ama omen dira hauek, eta pertsona bakar batek egiten ditu biak, bata bestearen gainean jarrita. Ondoren



Zalduondoko Markitos

Artza eta **Ardia** datoz, eta hauen atzetik **Porreroak**. Azken hauek beren buruak lurrera botatzen eta pertikak erabiliz teilatuetatik zintzilikatutako kandela izoztuak apurtzen ibiltzen dira.

Markitos jaitsi eta gurdian jartzen dute. Predikadoreak ez du momentu batean ere askatzen. Pilotalekura hel-tzen direnean bere epaia irakurtzen dio Predikadoreak Markitosi: hil egin behar du. Jendeak txalo jotzen du. Panpina lurrean jarri eta su ematen diote. Taldeko guztiek dantza egiten dute bere inguruan.

Arizkungo inauteriak

Nafarroako herri honetako inauterietako pertsonaia nagusia **Hartza** da. Korpus egunean ematen diote hasiera festari. **Bi damuñ** (etxezain) **nagusi** eta **beste bi damuñ laguntzaile** izaten dira aukeratuak egun honetan. Eta baita beste **bi damuñ etxeakoandre** ere.

Korpus asteko igandean lau damuñek egiten dute dantzan enparantzan, damuñ nagusi eta laguntzaleek. Igande eta Astelehen Inauterian ere gauza bera egiten dute.

Gainontzekoak soinean brusa, txapela eta zapi beltza jantzita elkartzen dira Igande Inauterian herriko ostatuan gosaltzera eta ondoren "puska biltzera", hau da, etxez etxe eskean abiatzen dira. Jan, edan eta zarata ugari egiten dute etxe bakoitzean. Antzina, neskaren bat zegoen etxean dantzan egiten zuten. Arratsaldeko lauretan bildutakoa jaten zuten ostatuan, eta gero, berriro enparantzara dantzan egitera. Iluntzean, neskak etxera eta mutilak berriro ostatura, afaltzera. Damuñ nagusi eta laguntzaileek damuñ etxeakoandre baten etxean afaltzen zuten, eta Astelehen Inauteri gauean bestearen etxean.

Astelehen Inauterian aurreko eguneko errepikatzen zen, pausoz pauso.

Asteartean, osteran, gazteak moztortuta kaleratzen ziren, kareta eta guzti batzuk. Zazpi-zortzi erraldoi ere agertzen ziren. Baina egun honetako pertsonaia nagusia, gaur egun ere, Hartza da. Gizon edo mutilen batek egiten du hartzarena, gorputz guztia artilez estalita.



Arizkungo Hartza

Batera edo bestera mugitzen da hartza, ihes egin eta jendea izutzen du. **Hartzainak** darama lotuta, bere ondoan mantentzea asko kostatzen bazaio ere.

Egun hau da, hots, Astearte Inauteria, **Sagar-dantza** dantzatzen den egun bakarra. Ohikoena neskek egitea bada ere, Arizkunen mutilek egiten dute.

Unanuako ijoteak

Unanuan Igande eta Astearte Inauterian ospatzen dira "Ijoteak" eta pertsonaia nagusiak **Mamoxarroak** dira.

Igandean Mamoxarro txikien eguna izaten da. Herriko hamabost-hamazazpi urte bitarteko mutil guztiak kaleratzen dira mamoxarro jantzita. Kamiseta eta galtza luze zuriak daramatzate soinean. Buruan zetazko koloretako zapia eta gerrian gerriko gorri edo beltza. Kaskabiloz jositako larruzko zinta gurutzatzen dute paparrean. Eta moztortoa oraindik ikusgarriago egiteko elementu harrigarriena: burdinezko karatula jartzen dute aurpegia estaltzeko. Inork ez daki noiz eginak diren karatulo eta zazpi geratzen dira herrian, hasieran zeuden sei pareetatik.

Mamoxarro hauek etxez etxe ibiltzen dira oles egiten eskuan daramaten makilaren puntan lukainka eta urdai zatitxo bat jarrita. Etxeetan arrautza, urdai, lukainka eta abar oparitzen dizkiete eta zortziak inguruan herriko tabernara bueltatu eta han afaltzen dute bildutakoa.

Astearte Inauteria, berriz, 17 urtetik

gorakoen eguna da, Mamoxarro handien eguna. Txikiak bezala mozorrotzen dira eta arratsaldean joaten dira oles egitera musikarien laguntzarekin. Azken hauek mozorrotu gabe joaten dira. Mamoxarro hauekin batera gazte batzuk ere joaten dira, nahi duten bezala mozorroturik. Hauei **Muttuak** deitzen zaie. Abestu egiten dute, baina hitzik ezin dute egin, eta hortik dator kie izen hori. Mamoxarroen antzeko makila eramaten dute eskuan.

Mamoxarroak herriko kaleetan zehar ibiltzen dira harrapakinen bila. Haur edo neskatilaren bat ikusiz gero, korrika abiatzen dira ea harrapatzen duten. Ondoren, ostatura bueltatzen dira afaltzera. Afalostean Mamoxarro handiek eta Muttuek enparantza edo udaletxe aurrean dantza egiten dute.

Lantzeko inauteriak

Astelehen eta Astearte Inauterietan ospatzen dira inaute egunak Lantzen. Pertsonaia nagusiak **Miel Otxin**, **Ziripot**, **Zaldiko**, **Txatxoak** eta **Ferratzaileak** dira.

Miel Otxin lastoz egindako hiru metro inguruko erraldoia da. Bi pago adarrez osatua dago; bata besoetarako, eta bestea hanketarako. Txapela darama buruan, kartoizko aurpegikoa eta zapia lepoan. Brusa loreduna eta galtza urdinak izan ohi ditu gomazko polainetan bildurik. Txantxo batek eramaten du sorbaldan festak iraun arte.

Zaldiko zaldi-gizona da. Gaztea da, segalarrien lasto txapelaz burua estalia, begiarte ikatzez beztua eta gerri azpi-



Lantzeko Ziri-pota

GAIA

Inauteriak

Non, zer eta noiz

tik egurrezko armazoa, aurrealdean zaldi-burutxoa zutik duelarik. Atzealdean benetako abere isatsa darama zintzilik.

Ziripot izenekoa da pertsonaiarik aldrebesena eta farregarriena. Buruan kapela, aurpegi estalia eta gorputza belar eta iratzez trinkotutako zakuan sartua du. Bere ibilera baldarrean makila du lagun.

Txatxoak era ezberdinetara jantzen dira baina beti koloretsu. Eskuan erratza edo makila daramate, aurpegia estalita eta buruan koloretako kapela konikoak.

Ferratzaileak hiruzpalau izaten dira. Gorputza zakuzko telaz estalia izaten dute eta beren lanbideari dagokion tresneria daramate eskuan.

Festa Astelehen Inauterian hasten da. Miel Otxin doa jendetzaren buruan. Ziripot traketsa, oinez egin ezinik dabil, makila baten laguntza duelarik horretarako. Txatxoek oihu eta dantza egiten dute. Zaldiko, Ziripot lurrera botatzen saiatuko da. Ziripot behin eta berriro eroriko da lurrera. Zaldiko Ziripoti hurbiltzen zaion bakoitzean, Txatxoek defendatuko dute. Halako batean Txatxoek Zaldiko harrapatzen dute eta Ferratzaileek ferratu egingo dute.

Hurrengo egunean, Astearte Inauterian, ez Ziripot eta ez Zaldiko ez dira kaleratzen. Miel Otxin da egun honetako protagonista nagusia. Enparantzara eramaten da Txatxoek inguratuz eta han epaitu egiten dute. Tiroz hil eta lurrera botatzen dute erraldoia. Zatitu eta sua egiten dute bere gorputzarekin. Ondoren, zortzikoa dantzatzen dute suaren inguruan.

Ituren eta Zubietako joaldunak

Herri hauetan urtarrileko azken igandearen ondoko astelehen eta asteartean



ospatzen dira inauteriak, bi herrietako mutilek elkar hartuta erabakitzen dutenean.

Joaldunak dira inauteri hauetako protagonistak, bi herrietako taldeak. Ezaugarri nagusia gerrian daramaten zintzarria da, "joare" deitzen zaiona. Horregatik deitzen zaie joaldunak. Gerria astinduz izugarritzko hotsa ateratzen diete zintzarrioi. Zubietako joaldunak alkandora zuria, ardilarru bakarra eta zapi urdina eramaten dute, eta Iturengoek ardilarru bikoitza eta zapi gorria. Guztiek isipua eramaten dute eskuineko eskuan haurrak uxatzeko eta txano dotorea buruan. Txano honi "Ttuntturroa" deitzen zaio. Ondorioz, joaldunei ttuntturroak ere deitzen zaie, eta baita zanpantzarrak ere.

Astelehen Inauteri egunean Zubietako joaldunak Iturenera joaten dira alka-



Iturengo Joalduna

tearen baimenaz. Astearte Inauterian, berriz, alderantziz, iturrendarrak joaten dira Zubietara.

Lesakako inauteak

Lesakako inauteetako egun handiena igandea izaten da eta **Zaku-zaharrak** dira protagonistak. Gorputza zakuzkiz (zakuzko telaz) estalia izaten dute eta azpian lasto edo sarale ugari eramaten dute. Aurpegia zapi batez estalia dute, begien eta ahoaren parean zuloak egiten dituztelarik. Eskuan puxika bana eramaten dute eta banan banan joaten dira "ié, ié, ié" oihuka. Herriko kale guztiak pasatzen dituzte horrela.


Mairuen laguntza ere izaten dute. Hauek kolorezko tela zatitxoiez estalia izaten dute gorputza.

Gaueko 10:00etan heltzen dira enpa-

rantzara. Han burdinazko barra bat dago alde batetik bestera eta hari eusten diote. Momentu horretan herriko haur eta neska-mutilek gainera salto egiten diete zaku-zaharrak lurrera botatzeko. Zakuetatik ere tiratzen diete eta zaku telak galtzen dituzte askok, lastoa edo saralea zabalduz. Haurrak elkarri lastoa botaz ibiltzen dira jolasean.

Astelehenean, berriz, Karrozen eguna izaten da. Talde ezberdinek muntatutako karrozak izaten dira ikusgai.

Nahiz eta astelehenean bukatu inauteak berez, Lesakako auzoetan asteartean ere jarraitzen dute. Auzoetako gazteak goizean goiz abiatzen dira baserriz baseri puska biltzera. Bi taldetan banatzen dira: goitiarrak eta fraindarrak. Goitiarrak zuriz jantzita doaz, txaleko eta txapel gorritz, galtzetan daramatzaten kaskabiloak astinduz. Trikitixa eta



Lesakako Zakuzaharra

krixkitina izaten dituzte lagun. Fraindarrak, bestetik, brusa beltzez, galtza zuriz, txapel berdez eta lepoko koloredunez jantzen dira. Eskusoinua eta erratz kirtena eramaten dituzte hauek.

Leitzako iotegik

Leitzako inauteriak iotegik izenez ezagutzen dira. Lehen Garizuma aurreko hiru egunetan ospatzen ziren -Zalduniote, Asteleniote eta Asteartiote egunez-. Herriko gazteez gain, zaldiak ere mozorrotzen zituzten Leitzan. Mozorrotutakoei **Atxoak** deitzen zitzairen. Txistulariekin batera eskean ibiltzen ziren, astelehenean herri kaxkoan eta asteartean baserrietan. Eta biltzen zutena izaten zuten bi egunetako otorduatarako.

Gaur egun, ordea, Leitzako iotegik ezberdinak dira. Egunei dagokienez, urtarrilaren hirugarren igandez eta ondorengo astelehen eta asteartez ospatzen dira, eta **Festa Txikiak** izena hartzen dute. Erromeria eta eskeak egiten dituzte bi gazte taldek. Txistu soinuak ibiltzen dira baserriz baseri eta ausposoinuz kale-etxeetan. Atxoak erabat galdu dira eta oraingo mozorroen ezau-garria kapela, zapia eta brusa dira.

BIBLIOGRAFIA

-Garmendia Larrañaga, Juan. "Inauteria. El carnaval vasco". Argitalpen eta publikapenen Gipuzkoar Erakundea, 1973.

-Arregi Nerea. "Euskal Inauteriak". Bizkaiko Ikastolen Elkarte.

-Susperregi Jose Mari. Zenbait lan.

Inauteriak non eta noiz

Leitza	urtarrilak 23, 24, 25 eta 26
Sunbilla	urtarrilak 29, 30 eta 31
Ituren-Zubieta	otsailak 1 eta 2
Ustaritze	otsailak 7, 14 eta 16
Tolosa	otsailak 11 eta 16
Abaltzisketa	otsailak 14
Mundaka	otsailak 14
Markina	otsailak 14
Lekeitio	otsailak 11 eta 16
Zalduondo	otsailak 14
Arizkun	otsailak 14, 15 eta 16
Unanua	otsailak 14 eta 16
Lantz	otsailak 15 eta 16
Lesaka	otsailak 14, 15 eta 16

Maskaradak non eta noiz

Altzürükü	otsailak 7
Altzai	otsailak 14
Muskildi	otsailak 21
Arrokiaga	otsailak 28
Ligi	martxoak 14
Maule	martxoak 20
Urdinarbe	martxoak 28
Barkoxe	apirilak 4
Larraine	apirilak 11
Iruri	apirilak 18
Mendi	apirilak 25

elkarriketa

MARIA PILAR OCHOA DE ERIBE ROYO

“

*Nire ardura nagusia
musika irakasten hasten
diren irakasleei laguntzeko
tresna eskaintzea izan da*

”



Maria Pilar OCHOA DE ERIBE ROYO

MARIA PILAR
OCHOA DE ERIBE



**“Haur
Hezkuntzan
ez da batere
logikoa
musika astean
ordubete
emanez
lantzea.
Egokiena
egunero 15
minutuko
saioa egitea
da”**

Musikaria eta musika irakaslea den emakume honek, Ibaizabal argitaletxeak argitaratu duen “Tutti da capo” izeneko materiala egin du. Musika irakasteko metodo batean oinarritzen den lana da. Helburu nagusia musika irakasteari aurrenekoz ekiten dioten irakasleen premia nabarienei erantzutea da. Momentuz 3 urtetik 6 urtera arteko haurrentzako materiala osatu du, baina, goragoko adinekoentzat ere egiteko asmoa du.

Zuretzat zer da musika, Maria Pilar?

Niretzat musika ez da solfeoa soilik, ez da entzuketa soil, ez da joko hutsa. Hori guztia eta gehiago biltzen dituen zerbait da musika. Entzumena, ikusmena, ukimena eta oroimen kinesikoa batzen ditu. Eta horrez gain, ahalmen intelektuala eta estetikoa pizten dituen jarrera animiko berezia sortzen du.

Zenbateko garrantzia du musikak hezkuntzaren barruan?

Handia, eta hemen oraindik ez zaio behar duen garrantzirik eman. Oraindik musika garrantzitsua dela esplikatzen gaude. Pirinioetatik gora ez dago horren beharrik, badakite. Nire esperientziak erakutsi dit hori. Europa horretan musika kultura da eta edozein herri txiki eta galdutan antolatzen den kontzertutan aretoak leporaino betetzen dira. Jende horrek agian ez du solfeorik jakingo, baina bai musika entzuten. Entzule onak dira eta kontzertuetako musika etxera eramaten dute entzuteko.

Gizarte mailan hemen baino garrantzi gehiago ematen zaio, orduan. Eta hezkuntzan?

Nik uste dut baietz. Orokorrean helduak entzule onak dira, eta horien artean baita irakasleak ere. Lehen esan dudan bezala, musika kultura da. Hala ere, hezkuntza mailan hizkuntza, matematika edo natura bezainbesteko garrantzirik ez du European ere, baina ez da hemen bezalako ikasgai “maria”. Ez da lehenengo ikasgaia,

baina herrialdeen arabera ere aldatu egiten da ematen dioten garrantzia. Hungarian, adibidez, musika oso sartuta dago eguneroko bizitzan.

“Tutti da capo” du izena zuk egin duzun materialak. Zerk bultzatu zaitu lan hau egitera?

Nire ardura nagusia musika irakasten hasten diren irakasleei laguntzeko tresna eskaintzea izan da. “Tutti da capo” hitzak berak zera esan nahi du: denok hasieratik. Denei erakusle erraz eta hurbil bat eskaini nahi izan diet. Behar hori nire inguruan somatu dut, hau da, irakasleak musika irakasteko ez direla moldatzen edo zenbait unetan estu eta larri aurkitzen direla ikusi izan dut. Musikak duen garrantzia kontuan hartuta, prestakuntzari ere garrantzia eman behar zaio eta horretarako tresnak edukitzea beti dago ongi.

Dena dela, ez da ikastetxeetara mugatzen, musika eskoletan ere lagungarri suertatu liteke.

Zein da egiten duzun proposamena, eskaintzen duzun metodologia?

Haur Hezkuntzaren eta Lehen Hezkuntzaren barruan musikaren arloa lantzeko prestatu dudana metodologia da.

Musika lantzean atal ezberdinak lantzea proposatzen da, hau da, ahotsa, instrumentua, lengoia musikal edo solfeoa, entzuketak, kantak, ipuinak, joko musikalak eta dantzak.

Oso metodologia dinamikoa da. Sako bakoitzean puntu hauek guztiak lantzen dira, flash moduan, nekatu gabe, aspertu gabe. Gauzarik egokiena hiru puntu hauek jokoan jartzea da: sentimenak, sentimenduak eta adimena.

Azter dezagun atal horietako bakoitza banaka. Ahotsa da lehendabizi aipatu duzuna.

Ahotsa lantzea oso garrantzitsua da, gure lehenengo instrumentua baita eta musikari guztiok landu behar duguna. Noski, ahotsa lantzen hastean, arnasketa, afinazioa, intentsitatea, tonua, tinbrea eta musikako parametro guztiak lantzen dira.

Instrumentua aipatzean, zeri egiten diozu erreferentzia?

Egia esan, instrumentu asko daude, baina hasierakoa eta lehenengo landu behar dena gorputza da. Gorputza da lehenengo

urtetan landu behar dena. Alde horretatik, European oso atzeratuak gaudela uste dut. Afrikan, esaterako, gorputzaren erritmoa oso landua daukate. Guk beti baztertuta uzten dugu gorputzaren garapen erritmikoa. 3 urteko haur bati lehenbailehen panderoa edo klabeak eman nahi dizkiogu, eta ez dago gaizki, baina besteaz ahaztu gabe.

Hirugarren bezala lengoia musikala edo solfeoa aipatu duzu. Askotan musika solfeoarekin lotzen dugu eta hori dela garrantzitsuen uste dugu. Hala al da?

Solfeoak literatura musikalerako atea irekitzen ditu, baina ez da garrantzitsuen, lehen esan dudana bezala, musikak atal asko baititu solfeoaz gain.

Metodo honetan 3 urteko haurrekin ez zara partiturak irakurtzen hasten. Solfeoa lantzen da, baina beste modu batera, hots, ahozkoa. Ikasten diren interbaloak keinu batzuk eginez abesten dira, Kodalyren fononimia erabiliz. Hau aurreirakurketa izango litzateke, gero ondoren 4 urtekin partituren irakurketa hasteko.

Beraz, solfeoa hasieratik lantzen da, baina hasieran (3 urterekin) ahozkoa da, aurreirakurketa.

Entzuketak aipatu dituzu ondoren. Zeri deitzen diozu entzuketara?

Beno, lengoia musikalaren ondoren aipatu dut, baina ez dut esan nahi garrantzi gutxiago duenik. Hau argituta, galdera erantzutera noa.

Musika entzutea da entzuketara. Beste ezer egin gabe, begiak itxi eta musika entzutea. Metodologia honetan musika klasikoa entzutea proposatzen dut nik, garrantzitsua baita eta ezagutu egin behar dela uste baitut.

Zergatik da garrantzitsua musika klasikoa entzutea?

Musika klasikoan agertzen diren elementu eta egitura guztiak oso aberatsak dira eta gainontzeko musika motak lantzen direnean erabiltzen direnak. Adibidez, jazz talde askok oso ondo ezagutzen dute Bach-en kontrapuntua. Mike Jaggerrek ere bira bukatu ostean musika klasikoa entzuten hasiko dela esan zuen.

Nahiz eta jazz, rock edo folk landu, denek ezagutzen dute musika klasikoa. Eta ikasleek ere ezagutu behar dutela iruditzen zait. Oinarri musikala aberatsa edukitzeko oso baliagarria da.

Musika klasikoaz gain, kantak ere bildu dituzu. Nolakoak dira hauek?

Argitaratuta dagoen materialean hiru kanta mota daude: herrikoiak, berriak eta kanpokoak. 88 abesti daude, hauetatik 69 herrikoiak, bi kanpokoak eta 17 berriak. Euskal Herri osoko kantak bildu ditut. Kanta herrikoiak ezagutu beharrekoak direla iruditzen baitzait.

Bestetik, kanta berriak ere asmatu ditut. 3 urteko haurrentzat zerbait errazagoa bilatu nahi nuen eta horregatik asmatu ditut berriak, gehienak adin honetarakoak dira. Gero, 6 urteko haurrentzat beste batzuk egin ditut, baina kasu honetan estiloz aldatzeko izan da.

Eta azkenik, kanpoko bi abesti daude 6 urteko programan: bata italiarra eta bestea frantsesa.

Zergatik sartu dituzu kanpoko abestiak?

Pixkat irekitzearen. Niri ez zait gustatzen kantak itzultzea. Kanta bat Italiakoa baldin bada, italiaraz kantatu behar dugu, eta ez zaigu ezer kaltegarria gertatuko horregatik. Gainera, atzerriko hizkuntza horretako fonemak ezagutzeko aukera ere ematen du. Fonema horiek familiarak egiten dira. Kantak grabatuta eta idatzita daude, eta nik egiaztatu dut nik ahoskatzen dudana bezala ahoskatzen dutela hau-

rrek ere. Beraz, fonema horiek ikasteko egokia da.

Kantak aukeratzekoan, zer hartu duzu kontuan? Nola egin duzu aukeraketa?

Musika doinuaren edertasuna, erritmoaren aberastasuna eta hitzak hartu ditut kontuan. Eta atzerriko abestien kasuan, leku horietako adierazgarrienak edo aukeratu ditut.

Joko musikalek ere musika saioko beste atal bat osatzen dute. Nolako jokoak dira?

Joko hauek helburu musikala dute, nahiz eta oso lotuta egon psikomotrizitatearekin, kontzentrazioarekin eta abar. Joko anitzak dira, mota askotakoak, helburu musikalaren arabera aldatu egiten baitira. Adibidez, helburua bi nota bereiztea baldin bada, gorila eta pertsonen jokoa egin daiteke. Ipuin moduan aurkezten dira batak eta besteak, beraien ezaugarriak azalduz, eta bakoitzak soinu bat ateratzen du. Soinu bakoitza nota bat izango da.

Dantzei dagokienez, zer aipa daiteke?

Dantza sinpleak dira eta aurreko saio batean ikasitako abesti batekin dantzatzen dira. Musika lantzeko beste modu bat eskaintzen du dantzak.



MARIA PILAR
OCHOA DE ERIBE



**“Pirinio-
etatik gora
musika
kultura da.
Hemen
oraindik
musika
garrantzitsua
dela
esplikatzeko
gaude ”**

Ipuinei ere garrantzi edo pisu handia ematen diezu.

Haurrei ipuinak asko gustatzen zaizkie eta oso garrantzitsuak direla iruditzen zait. Ipuinak fantasiaren mundura jotzen du. Haur Hezkuntzako materialean entzuketara bakoitzak ipuin bat dauka eta musika hobeto ulertzen laguntzen du. Ipuin hauek oso musikalak dira.

Zer dira, ipuin zaharrak ala berriak?

Berriak dira, entzuketara bakoitzarentzat espreski asmatuak. Hala ere, 3, 4 eta 5 urteko haurrentzako materialeko ipuinak eta 6 urtekoentzako materialekoak ez dira berdinak. Funtzio ezberdinak dituzte.

Zein funtzio dute, bada, 3, 4 eta 5 urteko haurrentzako ipuinek?

Lehen esan bezala, ipuin hauek entzuketekin lotuta daude, hau da, musika klasiakoaren entzuketekin. Orduan, ipuin hauen funtzioa musika hori entzuten laguntzea da.

Nola lortzen da hori?

Lehenengo, musika eta ipuina biak batera entzuten dira. Ipuina marrazkien bidez kontatzen da eta esaten dena eta musika elkarrekin lotuta daude. Adibidez, “Oboe jaun-andreak” ipuinean oboe familiari buruzko istorioa kontatzen da. Modu horretan, marrazkian edo ipuinean oboea hitz egiten hasten denean, oboearen soinua entzuten da. Horrela, oso ongi nabarmentzen dute oboeak noiz hitz egiten duen, hau da, noiz jotzen duen.

“Ehiztari ehizatua” ipuina Vivaldiren “Lau Urtaroak” obrari lotua dago. Kasu honetan hirugarren mugimenduari dago, hots, udazkenari. Ehiztariaren ipuina kontatu bitartean musika entzuten da.

Ipuinen bitartez batzutan instrumentua esplikatzen da, bestetan egilea, bestetan gaia... Datu errealak dira eta bide batez ikasteko aukera ematen du. Baina hala ere, helburua musika ongi entzuten ikastea da, egiten diren konposaketa horiek nolakoak diren ezagutzea.

Entzuketara hau lehenengo pausoa da. Gero, beste bi aldiz entzuten da musika hori, baina ipuinik gabe. Horrela, nahiz eta ipuinik ez entzun, musika ipuinarekin erlazionatzen da eta badakigu noiz entzuten ari garen oboea, bibolina edo beste instrumentu bat.

6 urteko haurrekin nola erabiltzen dira ipuinak?

6 urtekoak musika klasiko ipuinik gabe entzuteko prest egoten dira aurretik lehen esan dudana bezala landuz gero. Eta hori lortzea da, gainera, helburua. Adin honetan ere ipuinak entzuten dira, abesti bakoitzak bere ipuina dauka, baina ipuina ez doa musikaren gainetik, irakasleak kontatu behar du. Ipuinaren helburua giroa da, kasu honetan.

Beraz, adin honetatik aurrera entzuketak zuzenduta egiten dira. Hau da, irakasleak hasieran egilea, izenburua eta musikari buruzko zerbait esaten die. Adibidez, instrumentuen ezaugarri fisikoak eta hori jotzeko zein forma dauden, zein musika mota entzungo duten, zenbat aldiz agertzen den egitura konkretu bat... Irakasleriari informazio hori liburuan ematen zaio.

Aipaturiko atal hauek (ahotsa, instrumentua, solfeoa, entzuketak, joko musikalak eta dantzak) nola lantzea proposatzen duzu; saio bakar batean denak batera, saio bakoitzean bat...

Saio bakoitzaren edukia planteatzerakoan ere adina kontua hartu behar da. Hots, Haur Hezkuntzakoak eta Lehen Hezkuntzakoak.

Haur Hezkuntzakoak dagokienez, egokiena egunero 15 minutuko saioa egitea izango litzateke.

Baina eskola askotan ez da posible egunero 15 minutu lantzea eta astean ordubeterekin konformatu behar dute. Ez da batere logikoa astean ordu bete ematea, ez baita musika lantzeko modurik egokiena. Baina beste aukerarik ez badago, nik ordu bete horretan saio osoa lantzea proposatzen dut.

Zer egiten da saio bakoitzean?

Saio bakoitza bi astetan zehar landu behar da, hamar egunetan eta hiru atal nagusitan sailkatzen da: musika hizkera, musika kultura eta musika jokoak. Musika hizkeraren barruan arnasketa, melodiaren oihartzunak (oihartzun librea eta notaduna), erritmoaren oihartzuna, musikaren irakurketa (esku irakurketa, pentagrama irakurketa, partitura irakurketa eta kode libreko irakurketa) eta kantak lantzen dira. Musika kulturaren arloan artxiboko kanta eta entzuketara. Eta musika jokoetan irakurketa eta jokoak.

Astean ordubete edukiz gero, ordubete horretan guztiak lantzea proposatzen da. Eta egunero 15 minutu edukiz gero, egunean atal bat lantzea. Horrela, lehenengo egunean lehenengo atala, bigarren egunean bigarrena, hurrengoan hirugarrena, hurrengoan berriz lehenengoa... Horrela egunero musika lantzen da, baina puntu bati lehenetasunik eman gabe.

Atalak ezberdinak dira eta dena flash moduan, dena nahastuta lantzea da onena. Ekintza bat bestearen ondoren. Aktibitate asko dira, baina denbora osoan aldatuz, haurrak ez dira nekatzen eta aspertzen.

Nolakoak dira Lehen Hezkuntzako haurren saioak?

6 urtekoek ikasgai moduan edukitzen dute musika eta saioetan atal hauek lantzea proposatzen dut: oihartzuna (erritmoaren oihartzuna, medodiaren oihartzun libre, melodiaren oihartzun notaduna eta melodiaren oihartzun keinuduna), teoria, irakurketa (pentagrama irakurketa, partitura irakurketa eta kode libreko irakurketa), kanta, entzuketa, jokoak eta dantza. Ikasurte batean lantzeko 21 saio prestatu ditut.

Beraz, dena neurtua eta programatua dago. Malgutasunik uzten al dio irakasleari?

Bai, noski. Hau nik egiten dudana proposamena da, baina horrek ez du esan nahi dena hitzez hitz eta pausoz pauso jarraitu behar denik. Irakasle bakoitzak ikusi behar du bere haurren erritmoa, zenbat denbora duen eta abar. Adibidez, nik bi kanta lantzea proposa dezaket, baina irakasleak hiru kanta ditzake. Alde horretatik, malgutasun osoa dagoela iruditzen zait, baina helburuak ahaztu gabe eta beti kontuan izanik aportazio guztiak aberasteko izan behar dutela.

Dena dela, saioak prestatzeko eta metodologia hau ezagutzeko egin duzun irakasleriarentzako materialean pauso guztiak ongi zehaztuta agertzen dira. Horren beharra ikusi al duzu?

Bai, noski. Irakasleriaren prestakuntzak bultzada bat behar du. Askok ez dakite zer eta nola landu. Lehenengo irakasleriak prestatu behar du. Beraz, ikasleei bezala, gauzak ongi eta modu errazean azaldu behar zaizkio, eta klaseak emateko errazta-



sunak eman.

Horregatik, nik prestatu dudana material osoa grabatuta dago zintetan. Gidaliburua, musika kasetak, ipuinen kasetak, ipuinen liburuak, musika irakurketarako langaiak, eta ikasleentzako laminak eta abestien kasetak daude. Behar den materiala eskura dago.

Dena grabatuta edukitzeaz gain, metodologia ere esplikatzen duzu eta horri garrantzia ematen diozu, gainera.

Bai, hala da. Metodologiaren atal honetan irakatsi behar diren puntu guztiak azalduta daude: zer, zertarako, nola, zergatik. Metodo batean ezin dugu metodologia baztertuta utzi, oso garrantzitsua baita.

Ikasleentzat ez duzu liburu edo kuadernorik proposatzen. Zergatik?

Ez dutelako beharrik. Ez zait iruditzen bakoitzak kuaderno bat edukitzea beharrezkoa denik adin hauetan.

Zure lana ez da amaitu material hau egitearekin. Izan ere, ikastaroak ematen ere bazabiltza "Tutti da capo" dela eta. Zergatik?

Alde batetik, material bat egin ondoren, irakasleei esplikatzea gustatu egiten zaidalako. Eta bestetik, eskatu egin didatelako, batzutan zuzenean niri, beste batzutan PATekoen bidez, bestetan Ibaizabal argitaletxearen bidez... Ezin diet esan dena grabatuta eta idatzita dagoela eta besterik gabe horrela utzi. Nahiz eta metodoa erabili, gela barruan nola irakas daitekeen

ikustea gustatzen zaie. Ideia hau nola materializatzen dudana ikustea gustatzen zaie eta logikoa da. Dena ezin da idatzita azaldu, ikusita askoz errazago ikasten da.

Eta nolakoak dira ikastaroak? Zer irakasten duzu?

Ikastaro hauetan irakasleak ikasle bihurtzen dira eta nik musika saioak ematen dizkiet: entzuketak, jokoak, kantak... Askotan gertatu zait zerbait egiten hasi eta hurrekin agertzen diren arazo berak sortzea irakasleekin ere. Orduan, hurrekin hori gerta daitekeela azaltzen diet eta zergatik izan litekeen ikusi ondoren, zer egin dezaketen azaltzen diet.

Nolako erantzuna izan dute ikastarook? Gustura gelditu al zara?

Bai, irakasleak oso pozik omen daude eta ni are eta gehiago. Aukera hori irekia uzteko asmoa dut, gainera.

Zer ikasi behar dute irakasleek musika klasea ondo emateko?

Irakasleak ez duela gehiegi hitz egin behar ikasi behar du. Eta gorputzaren keinuak, aurpegia, begiradak, eskuak... erabiltzea oso garrantzitsua dela. Ahotsa ere modulatu egin behar da eta tonua eta intentsitatea zaindu. Benetan sinestu behar du musika garrantzitsua dela pertsonaren garapen egoki baterako eta ilusioa sorrarazi behar du.

Saio bakoitza unitate jarraitu bezala landu behar da, geldialdirik gabe. Ariketen burutze zehatza zaintzea komeni da, gehiegi estutu gabe. Eta zer edo zer irteten ez

MARIA PILAR
OCHOA DE ERIBE



“*Musika lantzean atal ezberdinak lantzea proposatzen dut, hau da, ahotsa, instrumentua, lengoaia musikala edo solfeoa, entzuketak, kantak, ipuinak, joko musikalak eta dantzak*”

denean, beste bide bat bilatu lortu arte.

Metodologiarekin eta, oro har, egin duzun lanarekin gustura al daude?

Bai, dirudienez oso baliagarria da eta haurrak ere pozik daude. Asko ikasten dute, eta irakasleek ere bai beraiekin. Nik uste dut prozesu ziklikoa dela. Irakasleak benetan musika irakastea posible dela ikusten du eta segurtasun batekin doa. Gainera, haurrek nola erreazionatzen duten ikusi ondoren, gehiago pozten dira. Beraien artean motibatzen dira.

Nondik sortu da hain erantzun ona izaten ari den metodologia eta zuri ere hain emaitza onak eman dizkizuna?

Metodologia ez da nik asmatua, hau da, nik ez dut gauza berririk asmatu, baina metodo ezberdinak begiratu ditut: Orff, Kodaly, Willems, Dalcroze, Martenot eta Suzuki. Metodo garrantzitsuenak ikusi eta esperimentatu ditut eta bakoitzeko zerbait nire erara moldatu dut. Batean erritmoa oso ongi lantzen bada eta interesgarria bada, hori interesatzen zait. Bestean afinazioa lantzeko modu egokia erabiltzen bada, hori interesatzen zait.

Beti hausnarketa egin izan dut nire esperientzian oinarriturik. Niri ikasterakoan zer gertatzen zitzaidan gogoratzen nuen, zer-nolakako trabak nituen konturatzeko eta horiei nola aurre egin pentsatzeko.

Erraza al da metodo ezberdinak bilatzea?

Egia esan, zera ohartu naiz: azkenean denak puntu berdinerira iristen direla. Baliabide ezberdinak erabiltzen dira, baina leku berdinerira iristen dira. Metodo bakoitza ikusi dut eta bakoitzetik printzipioak atera ditut. Batzutan zenbait metodotan ikusi dudana interesatu zait, baina aurrera eramatea ez dela posible konturatu naiz. Lehentasunak markatu behar izan ditut eta bakoitzetik zerbait hartu. Burua jantzi dut denekin.

Lan hori egin ondoren, ondorio berririk atera al duzu?

Ondorio garrantzitsu bat ikusi dut, baina ez da nik ateratakoa. Lehen aipatu ditudan metodo horietan ibilitakoak ere ondorio berdinerira iritsi dira. Hau da, musika ikasten denean ez dela notak non jartzen

diren soilik ikasten, gaitasun intelektualak ere garatzen direla. Musika helburu bat da, pisuzko materia da berez, eta arlo guztiak garatzeko aprobetxatuko bagenu, hobe. Formazio pertsonal bezala ere oso garrantzitsua da eta gaitasun intelektualak garatzeko ere bai.

Baina hori nola frogatu liteke?

EEBBetan esperimendu bat egin zuten hori ikusteko. Bi gela zeuden: bat emaitza oso onak zituena eta bestea oso txarrak. Gela txarrean musika irakasten hasi ziren eta iritsi nahi zuten puntura baino gehiago iritsi ziren. Noski, hori ez zuten lortu “goazen kantatzera” esatearekin soilik. Musika-ren bidez logika edo buruaren egituraketa lantzen hasi zirelako baizik.

Eta esperimendu hau berma nahikoa al da hori baieztatzeko?

Ez da esperimendu bakarra. Suzukiren metodo japoniarrak ere frogatu du musika kontzentrazioarekin, arretarekin eta gaitasun intelektual horiek kontuan hartuta lantzen hastean, ikasle horiek beste ikasketetan ere oso ondo ibiltzen direla. Izan ere, musika ez da edukien poltsa bat soilik, garapen artistikoa lortzeko balio izateaz gain, garapen hori logika batez ikasteko aukera ematen du. Musika lantzearekin memoria auditiboa, memoria kinesikoa, egitura espaziala eta logika lantzen dira. Gero, logika matematikan erabiliko da, memoria auditiboa hizkuntza ikasteko garaian oso egokia izango da fonemak ikasteko eta horrela beste hainbat gauzekin.

“Tutti da capo”ko materiala bukatuta al dago?

Ez, ez dago bukatuta, jarraipena izango du. Nire asmoa adin guztietako ikasleekin lantzeko ikasmateriala prestatzea da, baina poliki-poliki egin nahi dut. Ez zait dena batera ateratzea interesatzen. Denbora eman behar diot orain kalean dagoen materialari eta irakasleriari. Lehen esan dudana bezala, material berria atera eta irakasleei esplikatzea gustatzen zait.

Horregatik diot, jarraipena izango duela, baina ongi erantzuteko moduko erritmoan.

GEHIGARRIA

hik hasi

EUSKARA ZINE ARETOETARA

euskal
heziketakako
aldizkaria


35

Euskara zine aretoetara

TINKO

Euskara Elkarte

“Gure helburua euskara zine aretoetara sartzea da”



Tinko Euskara Elkarteak bost urte daramatza zinerako, bideorako eta telebistarako filmak euskaratzen. Euskararen normalkuntza ez da arlo batzuetara bakarrik mugatzen, eta horregatik dio sortzaileetako bat den Marian Galarragak normalkuntza horri laguntzeko sortu zela Elkarte. Zine areto komertzialetan euskara sartzeko, hain zuzen ere. Urte hauetako ibilbideaz eta zinea eta euskararen arteko egoeraz mintzatu gara berarekin.

Zerk bultzata sortu zen Tinko Euskara Elkarte 1994. urtean?

Zine aretoetan euskarak zuen hutsunea nabarmena zela ikusten genuen zine eta bikoizketa munduan genbiltzan batzuek. Kezka horri bueltak ematen hasi ginen. Telebista eta bideoan euskarazko filmak bazeudela ikusten genuen, eta zinean ez. Azken batean, kezka hori saiakera bat egiteko asmo bihurtu zen eta euskara maite dugun eta zine munduan gabiltzan talde bat bildurik sortu zen Tinko.

Helburu nahiko argiekin sortu zen, orduan.

Bai, euskarak gizarte honetan ez

duela debekurik izan behar ikusten genuen. Bakoitzak bera mugitzen den lekuan ikusten du hutsunea eta gure kasuan, zinema munduan. Gure lanbideko hutsuneak konpontzen hasi ginen, alegia, zine areto komertzialetan euskararen presentzia ezari aurre egiten.

Zein izan zen bide horri ekiteko eman zenuten lehen urratsa?

Lehenengo urtea azterketa bat egiten eta zinea euskaraz jartzeko proiektu bat egiten pasa genuen. Azterketa horren ondorioz zailtasun handiak zeudela ikusi genuen, oso zaila zela, baina ez ezinezkoa, askok uste zuen bezala.

Gure helburura iristeko lehen pauso bat eman beharra zegoela konturatu ginen: ohitura sortzea. Eta horretarako, hoberena txikitatik hastea izaten da. Horrela bada, ikastetxeetan eta eskola-orduetan zinea euskaraz eskaintzeari ekin genion.

Nolako harrera izan zuen proiektuak?

Egia esan, proiektuarekin diru eske joan ginenean inork ez zuen sinesten eta inork ez zigun dirurik ematen. Baina gu setati-setati jarri ginen eta posible zela frogatzeko geure poltsikotik dirua jarri behar bagenuen, jarriko genuela erabaki genuen. Eta horrela hasi ginen azkenean.

Nola uztartu zenituzten zuen proiektuko hiru zutabeak, hots, zinea, eskola eta euskara?

Lehen esan bezala, zinea euskaraz ikusteko ohitura zabaltzea zela klabea ikusi genuen. Beraz, eskolatik hasi ginen. Haurrak eskolatik filmak ikustera joaten ziren, baina gaztelaniaz ikusten zituzten. Eta gero, gelara bueltatu ostean filmari buruzko lanak euskaraz egiten zituzten. Horrela, haurrek zera pentsa dezakete: gaztelania dela gauza dibertigarrietarako eta euskara, berriz, behartuta hitz egiteko eta eskolan lanak egiteko. Kaleko gauza atsegingarri eta dibertigarriak gaztelaniaz dira. Beraz, zein da hizkuntza polita eta dibertigarria? Gaztelania, eta ez euskara.

Horrekin nolabait bukatu behar zela ikusi genuen eta pelikulak ikusi nahi bazituzten, gutxienez euskaraz eskaini behar genizkiela.

Horrela, lehenengo gauza ikastetxez ikastetxe inkesta bat egitea izan zen.

Zer galdetu zenieten ikastetxei inkestarekin?

Ea prest egongo ziren haurrak zinemara eramateko eta filmak euskaraz ikusteko, zenbat haur izango ziren... Eta erantzuna izugarria izan zen.

Erantzun horren ostean euskarazko filmak eskaintzeari ekin zenioten. Baina non eta nola?

Proiektu honen barruan zine aretoak dituzten hainbat udalekin harremanetan jarri ginen eta udal guztiei gauza bera eskatu genien: zine aretoko gastuak ordaintzea guk euskarazko film horiek eskaintzean. Guztira Euskal

Herri osoko 41 herritan izan gara orain arte eta 275 ikastetxe izan dira zine areto horietan. Ikasle kopuruari dagokionez, 45.201 izan ziren 1997/98 ikasturtean.

Beraz, areto komertzialetan estreinatzen ditugu filmak. Hauetan bi edo hiru hilabetetan erabili eta gero, herriz herri eta eskolaz eskola eskaintzen ditugu bideoetan, horrela haur guztiek filmak euskaraz ikusteko aukera izan dezaten.

Zer lortu nahi duzue zehazki ikastetxeetako proiektuarekin?

Alde batetik, zinea euskaraz ikusteko ohitura sortzea. Eta bestetik, zinea euskaraz ikusteko duten eskubidea bermatzea. Izan ere, haur horiek euskaraz ikasten ari dira ikastetxean, eta nik uste dut gaztelaniaz errazago ikasiko luketela, esfortzu gutxiago egin beharko luketela, alegia. Baina euskaraz ikasteko esfortzu gehigarria eskatzen zaie. Irakasleek ere izugarritzko esfortzua egiten dute gero eta irakas-kuntza hobea eskaintzeko eta euskaraz ondo ikasita atera daitezten.

Ikastetxean hori guztia egin ondoren kalean gaztelania ematen badiegu, iruzur egiten ari gara haur horiei. Iruzur izugarria, euskara ez dutelako ezertarako behar.

Beraz, gizarteko arloak euskalduntzeko erantzukizuna daukagu helduok hurrekiko errespetuz.

Bai, hala da. Nik uste dut helduon erantzukizuna kalea euskalduntzea dela. Ni dendaria banintz, dendarien elkarte sortuko nuke eta bertan bezero guztiei lehenengo hitza euskaraz egitea erabakiko nuke. Eta dendariak bezalaxe egin dezakete kartelak egiten dituztenek, autobus gidariak eta abar. Bakoitzak bere arloan egon behar du eta gure arloari dagokionez, nik uste dut hurrek merezi dutela egunen batean zine areto batera joan eta film bat euskaraz edo gaztelaniaz ikusteko aukera izatea. Helburua horixe da, haur horiei zor dieguna eskaintzea.

Bestalde, filmak euskaraz ikustez gain, gelara bueltatu eta film horiekin hainbat gai eta balore lantzeko aukera ere badago. Nola bideratu duzue jarraipen hori?

Unitate didaktiko batzuen bidez lantzen dira filmeko gaiak eta horrela filmaren ikusketa zenbait balore lantzeko aprobetxatzen da. Material didaktiko hau egiteko hasieran Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Berrikuntza Pedagogikoko Zuzendaritzarekin jarri ginen harremanetan. Ikastolen Elkarteko material pedagogikoa egiten duen taldearengana ere jo genuen eta haiek egin ziguten lehen materiala.

Orain, berriz, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Drogomenpekotasunen Prebentziorako Sailak egiten dizkigu unitateok. Aspalditik dabilta haurrentzako prebentziorako unitate didaktikoak egiten eta guretzat euskaraz egiten dituzten materialok.

Nolako unitateak dira? Adinaren arabera? Filmaren arabera?

Film bakoitzak bere unitate didaktikoa izaten du. Baina kontuan hartu behar da film bat adin ezberdineko haurrek ikus dezaketela, bakoitzean balore ezberdinak lan daitezkeela eta bakoitzak bere etekina atera dakiokela. Beraz, film batek unitate didaktiko bat baino gehiago eduki ditzake, bat lehenengo mailakoentzat, adibidez, eta beste bat 2. eta 3. zikloentzat.

Gainera, filmak eskola-orduetan ere eskaintzen ditugunez, gela edota adinen arabera sailkatu behar izaten ditugu. Horrela sailkapen hau daukagu egina: 3-4 urtetik 7-8 urtekoentzat, 7-8 urtetik 10 urtekoentzat, 10-12 urtekoentzat eta 12-14 urtekoentzat.

Eta zer gertatzen da 14 urtetik aurrerako ikasleekin?

Hortxe dago kokka eta erronka. Aurten "Errebelde baten egunkaria" filma euskaratu dugu eta hori 14-15 urteko gaztetxoentzat da. Izan ere, orain dela bost urte proiektu honetan



Marian GALARRAGA

“Zinea euskaraz ikusteko ohitura zabalitzea zela klabea ikusi genuen eta eskolatik hasi ginen”



gurekin hasi ziren ikasleek 14-15 urte dituzte eta beraiei dagozkien filmak eskaini behar zaizkie. Horretan datza gure saiakera.

15 urtetik aurrerako gazteentzat ez dago euskarazko filmik eta horiek ere badute eskubidea euskaraz ikusteko. Orain arte izan badute, zergatik ez hemendik aurrera?

Horrela bada, "Errebelde baten egunkaria" pelikularekin hasi gara aurten eta datorren urterako nerabeen arteko sexu harremanei buruz hitz egiten duen film bat eskatuta daukagu.

Eskola adinean ohiturak aldatzea lortzen bada, ondoren jarraipena izateak garrantzia du, dudarik gabe. Horretaz ohartuta zaudete. Baina gizartean ba al du islarik? Zer gertatzen da zine aretoetan?

Egindako lanak jarraipena izan behar du, ezin du moztuta gelditu. Horretan ez dago zalantzarik. Baina nik badakit ez dela egun batetik bestera aldatuko den gauza eta pixkanaka pixkanaka konbentzitu behar dugu jendea proiektu hau posible dela. Zine aretoetako jabeak ere konbentzitu behar dira eta hauek Madril etaartzelona konbentzitu behar dituzte ondoren. Donostiako Zinema Jaialdian "Big" filma ikustera 15.000 ikusle hurbildu ziren 1997. urtean, adibidez, eta areto komertzialetako ikusleak 6.204 izan ziren guztira 97/98 ikasturtean.

"Gure arloari dagokionez, nik uste dut haurrek merezi dutela egunen batean zine areto batera joan eta film bat euskaraz edo gaztelaniaz ikusteko aukera izatea"

Dena dela, prozesu honekin guztiarekin hasteko beharrezkoa den lehengaia filma edo pelikula da. Nondik eta nola eskuratzen dituzue?

Hasieran Warner, Columbia, Disney eta horrelako etxe handiekin hasi ginen, baina inongo interesik ez zutela konturatu ginen. Baina ez dira amerikarrak bakarrik pelikulak egiten dituztenak. European ere oso film onak daude eta hara jo genuen.

Kasualitatez, elkarteko bazkide baten lehengusua Suitzian bizi da. Hango unibertsitateko irakaslea da eta euskaldun porrokatua. Zine mundua ezagutzen du eta ekoizleak, banatzaileak... ere bai. Horrela, berak European zeuden filmak aztertzeari ekin zion eta gure proiekturako egokiak ziren filmak aukeratzen hasi zen. Alemania eta Suitzako haurren artean arrakasta eduki zuten pelikulak aukeratu zituen, han ere unitate didaktikoekin landutako filmak. Film dibertigarriak dira, oso politak eta atseginak eta eduki aldetik zenbait balore lantzeko aukera ematen dutenak. Adibidez, Charlie & Louise, Rudy txerri azkarra, Annaanna, Jack Amazonasko errege, The Borrowers, Big...

Film hauen eskubideak erosi egiten al dituzue?

Bai, dauden hiru eskubideak. Hau da, zinerako, telebistarako eta bideoarako. Zazpi urterako eskubideak izaten dira eta Euskal Herriko zazpi probintzietarako. Pelikula hauek bikoizten ditugunean, bi urtetan zine aretoetan erabiltzen ditugu eta gero, telebistari saldu edo bideoak ateratzen ditugu. Gainera, ikastetxeek bideoarekin pelikula hori hurrengo kursoetako haurrekin lantzeko aukera dute eta hori oso praktikoa da zentroentzat.

Zenbateko kostua du pelikula bat bikoiztu eta eskubideak erosteak?

Sei milioiko aurrekontua izaten du film bat bikoizteak eta momentuz Euskal Herrian diru hori berreskura-

tzea ezinezkoa da. Izan ere, kontuan hartu behar da euskarazko filmak gaztelaniazkoak baino jende gutxiagok ikusten dituela. Eta nahiz eta euskaraz dakiten guztiak joan euskarazko pelikulak ikustera, diru hori ez litzateke berreskuratuko. Hizkuntza batean edo bestean bikoiztea berdin kostatzen da, baina bezero potentziala ez da berdina Euskal Herrian eta Estatu espainiarrean, adibidez.

Bikoizketa oso garrantzitsua dela esan daiteke. Zeri ematen diozue garrantzia pelikulak euskaratzerakoan? Zer da gehien zaintzen duzuen?

Alde batetik, bikoizketa bera. Zinerako eta telebista edo bideorako bikoiztea ez dela berdina aipatu behar da lehenengo eta behin. Zinemako pantailan irudiak hamar aldiz handiago ikusten dira eta akatsak askoz nabarmentago gelditzen dira. Adibidez, ahoa eta hitzak ez badira ondo egokitzen, zinean konturatu egiten zara, telebista edo bideoan ez bezala. Beraz, bikoizketa bera gehiago zaindu behar da.

Bestetik, euskara zaindu egin behar da. Gure proiektuaren helburua ez da irabaziak ateratzea, euskarari duintasuna ematea baizik. Horregatik, gaztelaniaz edo ingelesez egiten diren bikoizketak baino hobeto egitea lortu nahi izaten dugu. Jendea zinetik “zein hizkuntzatan entzun dut film hau?” galdetuz irtetea nahi dugu. Mezu eta hitz guztiak inolako esfortzurik egin gabe jasotzea lortu behar da, eta horretarako bikoizketa ona behar da.

Bikoizketa ona lortzeko itzulpenak ere ona izan beharko du.

Bai, itzulpenak ere landu eta zaindu egin behar dira. Elkarriketek ez dute kortse batean sartuta gelditu behar. Askeak eta hizkera arruntekoak izan behar dute, inolako akatsik gabeak baina euskaraz arrunta izateko ematen duen aukerarekin. Oso erraz ulertzeko bikoizketa egiteko modukoa izan behar du itzulpenak.

Eta bikoizleen mailak zenbateko garrantzia du?

Horrek ere badu bere garrantzia, noski. Pertsonaia bakoitzari hobekien dagokion ahotsa jartzea garrantzitsua da. Horregatik, guk ez daukagu plantillarik, Euskal Herri osoko bikoizlee-kin egiten dugu lan. Guztira 60-80 bikoizle egongo dira gutxi gorabehera. Eta horrela, aurpegi bakoitzarentzat egokiena den ahotsa aukeratzen dugu.

Zer iritzi duzu orain arteko bikoizketei buruz?

Egia esan, gure proiektuari ez diote inolako mesederik egin ETBko bikoizketek. Ezinezkoa zen bikoizketa horiek entzutea. Hain txarrak ziren, non jendeak nahiago zuen pelikulak gaztelaniaz ikusi.

Horregatik, euskarazko zinea egiten hasi ginenean, telebista abiapuntuzat ez hartzea erabaki genuen.

Zenbat film bikoiztu dituzue orain arte?

Guztira 20-22 pelikula euskaratu ditugu lanean dihardugun urteotan.

Nola ikusten duzu hemendik aurrerako egoera?

Bidea urratzen hasiak gaude eta hemendik aurrera horretan jarraituko dugu. Orain arte egindako lana bere emaitzak ematen ari da. Eskola-orduetan eta herrietako zine aretoetan euskarazko emanaldiak eskaintzea lortu dugu. Donostiako Zinema Jaialdian ere urtero film bat bikoizten dugu, bertan estreinatu ondoren bi urtetan zehar eskolaz eskola erabiltzen dugularik.

Bestalde, Donostiako Illunbeko Warnerren zinemetan euskarazko filmmentzat areto bat egon dadin eskatzen ari gara. Hori oso pauso garrantzitsua izango litzateke, Warnerren filmak euskaraz bikoiztu ahal izango lirakeelako. Baina horretarako, lan egin behar da. Euskarazko aretoa lortzea ez da nahikoa, horri jaten eman beharko zaio.



“Unitate didaktiko batzuen bidez lantzen dira filmeko gaiak eta horrela filmaren ikusketa zenbait balore lantzeko aprobetxatzen dugu”

Zinea eta Osasuna

Ikasgelan lan egiteko materiala

Tinko Euskara Elkartek euskara zine aretoetara eramateaz gain, film horiek gelan lantzeko unitate didaktikoak eskaintzen ditu. Marian Galarragak aipatu bezala, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Drogomenpekotasunen prebentziorako Sailak prestatzen ditu unitateok. Horietako batzuen zatiak dituzue ondorengoak, nolakoak diren ikus dezazuen.

Borrowers

Jatorrizko izenburua: "The Borrowers"

Naziotasuna: Estatu Batuak
Urtea: 1998

Zuzendaria: Peter Hewitt

Aktoreak: John Goodman, Jim Broadbent, Mark Williams, Hugh Laurie

Ekoizlea: Working Title Production

Musika: Harry Gregson-Williams

Iraupena: 90 minutu

Sinopsia:

Zuhurrak, isilak eta ausartak dira; 6,5 cm neurtzen dute eta inork ez ditu sekula ikusi. Pocho Clock, Obdulia eta hauen seme-alaba Anita eta Pizquita Lender sendiaren etxeko zorupean bizi dira "apopilo". Egun batez, Anita ausartak abentura bila irtetea erabaki eta nork eta Peter Lender gazteak harrapatzen du. Laster egin ziren lagun biak, eta Peterrek kontatu zionez, euren izeko Mery hil berri zitzairen eta haren testamenturik ez zenez inondik eta inora azaltzen, etxea utzi beharrean aurkitzen ziren. Biek buru-belarri ekingo diote testamentua aurkitzearen abenturari, Ocius Potter abokatu maltzurak etxea bota baino lehen.

Lehen Hezkuntzako 1. ziklorako unitate didaktikoa

KONTUZ IBILI

4.- EGIN BEHAR EZ DITUZUN GAUZAK

Behira eginen ondorengo ekintzes. Batzuk arriskutsuak izan daitezke. Aurki itzazu eta guzulge bat egin gainean.



Leihora irtetea



Nire jostailuak batzea

Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. ziklorako unitate didaktikoa

- Maileguz hartzea

Borrowersdarrek behar duten guztia Lender familiaren etxetik hartzen dute. Eurak horri "maileguz hartzea" deritzote, baina benetan egiten ari direna lapurreta da:

* Maileguz hartzeak zera esan nahi du: beste pertsona bati bere oniritziz eta itzultzeko konpromezuz zerbait hartzea.

* Osteak zera esan nahi du: beste pertsona baten zerbait bere oniritzirik gabe hartzea eta itzultzeko asmorik gabe hartzea.

Ikusi ondorengo egoera

- Paula: Aizu, Julian, orain dela den-

boratxoa utzi nizun diskoa?

- Julian: Ah, bai! Ahaztuta neukan. Egia esan, Laurentziri utzi nion.

- Paula: Nik diskoa zuri utzi nizun eta ez beste bati. Itzuli egin beharko didazu, eskuetan behar dut eta.

- Julian: Eskatu egin zidaten eta...

- Paula: Bai, baina eskatu ezean hor gelditzen naiz diskorik gabe. Aurreantzean, zerbait eskatzen didazunean ondo pentsatu beharko dut utzi edo ez.

Zure iritzia

1. Nola portatu da Julian Paularekin?

() Behar den moduan

() Gaizki

2. Erantzun hori merezi al zuen Julianek?

() Bai

() Ez

3. Ondo jokatu al du Julianek?

() Bai

() Ez

4. Uste dut Paulak gauza gehiago uzten jarraituko duela:

() Bai

() Ez

5. Nik Paularen lekuan zera esan edo egingo nioke:

6. Uste duzu, orokorrean, utzi al zaizkiola gauzak jendeari?

() Bai

() Ez

Zergatik?

- Taldean lan egitea

Borrowersdarrek elkar lagundu eta gauzak elkarbanatzeko lagunak aurkitzen dituzte. Garrantzizkoa da lagunak, auzolagunak... edukitzea, azken batean, une latzetan elkar laguntzeko jendea ondoan izatea.

Taldean ondo integratzen zaren edo zeure aldetik ibiltzea nahiago duzun jakiteko aukera duzu orain. Ikasgelan lanerako duzun taldean, futboleko taldean, koadrilan... pentsatuta egin zenezake ariketa.

a.- Ni taldean...

1.- Ikusi ere egiten ez den horietakoa naiz.

2.- Ahal dudanean parte hartzen dut.

3.- Neu naiz jaun eta jabe.

b.- Taldean zerbait egin behar denean...

1.- Neuri tokatzen zait beti.

2.- "Neuretxoa" aportatzen dut.

3.- Besteak arduratzen dira horretaz.

c.- Taldean erabakiren bat hartu behar denean...

1.- Besteek erabakitzen dute nire partez.

2.- Atsegin dut erabakiak hartzea.

3.- Neuk diodana egiten da.

d.- Taldeak funtziona dezan iritziak eman eta informazioak ekartzea garrantzitsua da, horregatik nik...

1.- Gutxitan ematen dut iritzia.

2.- Nik diodanak ere balio du, ezta?

3.- Neu naiz informazio bakarra.

e.- Hauetako nor zara zu?

1.- Ia beti isil-isilik egoten naiz.

2.- Beti daukat ideia onen bat.

3.- Neure esana betetzea nahi izaten dut.

f.- Taldean arazoren bat dagoenean...

1.- Oso gutxitan enteratzen naiz.

2.- Besteei entzun eta irtenbideren bat proposatzen dut.

3.- Aurka egiten dut beti.

Errebelde baten egunkaria

Jatorrizko izenburua: The basketball diaries

Naziotasuna: Estatu Batuak

Urtea: 1997

Zuzendaria: Scott Kalvert

Aktoreak: Leonardo Di Caprio, Bruno Kirby, Lorraine Bracco

ekoizlea: Liz Heller

Musika: Graeme Revell

Argazki zuzendaria: David Phillips

Banatzailea: New Line Cinema, Island Pictures

Iraupena: 102 minutu

Sinopsia

Jim (Leonardo Di Caprio), bere lagun Mickey, Pedro, Neutron eta Bobbyrekin batera, auzoko eskola katolikoko Aita McNultyren ikasgelako "mutil okerrak" dira. Uniforme zikinak janzen dituzte, okerkeriak egiten dituzte eta sekula ere ez dira damutzen. Garbitasunerako produktuak esnifitzen hasi eta apurka-apurka drogaren munduan zeharo sartuta bukatzen du Jimek. Bere onean mantentzen duten bakarrak bere diarioak dira. Amak ere etxeko ateak ixten dizkion garai latzetan, egunero-egunero



aitormen erara idazten dituen orriak biziraupenerako ezinbesteko euskarri zaizkio.

Unitate didaktikoaren aurkibidea

Sarrera: Drogomenpekotasunen prebentzioa

A. Drogak:

1. Filmaren iruzkina
2. Alkoholak ezberdin egiten al gaitu?
3. Julio Albertoren kasua
4. Legeztatuko al zenituzke drogak?

B. Gizabanakoa

5. Nor naiz ni?
6. Autoestimua
7. Nola aurre egin nire arazoei?
8. Marisaren istorioa

C. Inguru soziala

9. Nola aurre egin talde presioari
10. Erabakiak hartzea
11. Nola osatzen dugun gure denbora librea
12. Aisialdi ezberdina

Filmean agertzen den gai nagusia drogomenpekotasuna da. Unitate honetan gai hori hiru elementutan aztertzen da: drogak, gizabanakoa eta inguru soziala. Bakoitzean kasu ezberdinak lantzen dira, aurkibidean ikus daitekeen bezala. Hona hemen elementu bakoitzeko adibide bana.

A. Drogak

Alkoholak ezberdin egiten al gaitu?

M^a Angelesen kasua

M^a Angelesek 12 urterekin hartu zuen bere lehenengo kopa. Hortik aurrera eta 15 urtera arte, astebururo edaten zuen auzoko neska-mutilekin batera, "eta gutxi gorabehera adin horretatik aurrera, arrastaldero joaten ginen botillak bete-beteta bazterren batera, edo bolatokira, denbora pasatzera".

"Nik uste, 19 urterekin hasi nintzela menpekotasuna izaten. Gertatzen dena zera da, Alkoholiko Anonimoetara joan aurretik ez nekiela gaixotasun bat zenik ere".

Egia esan, M^a Angeles ez zen inora joan. Ezin zuen. "Etxera etorri zitzaizkidan bila, hortxe da egia", dio berak.

Egun batez gehiegi edan zuen, bera ez da gogoratzen, "eta amak hain egoera negargarrian ikusi ninduen ze, negarri ekin ziola. Nire gaztaroa guztiz zapuztuta zegoen, edatea baino ez nukan buruan. Argitasun une batean zentro batera joatea onartu nuen, hogeit hamar egun eman nituen bertan. Alferrikakoa izan zen, irten nintzenez berriz erori nintzen. Orduan, Elkarte-ko lagun bi bila etorri zitzaizkidan eta haiei esker lortu dut aurrera egitea".

Gazteak eta alkohola, arrisku handiko nahastea

Entreviu astekaria

Ikasgelan komentatzeko

1. Errudunik balego, nor litzateke/nortzuk lirarteke M^a Angelesi gertatutakoaren erantzule?

- M^a Angeles
- Lagunak
- Gurasoak
- Gizartea
- Iragarkiak
- Bitartekoak
- Bestelakoak...

2. M^a Angelesen lagunek zergatik ez zioten larrialdi hartatik ateratzen lagundu? Fida al daiteke inor lagun usteko horiekin?

B. Gizabanakoa

Nola aurre egin nire arazoei?

Filmean Jimék eta bere lagunek egoera zail bati egiten diote aurre: lagun baten heriotzari. Gertaturikoa ahaztu nahian, edariaren itzalean aurkitzen dute babesaren latza igarotzeko. Taldeka banatu eta erantzun ondorengo galderei:

1. Jimék eta bere lagunak samina baretzeko erarik onena dela uste al duzue? Zergatik?

2. Mozkortuta daudenean, zein eratakoa da lagunak arteko komunikazioa? Benetan sentitzen dutena esaten dute ala esaten dutena alkoholaren eraginpean dago?

3. Egoera horretan daudenean, laguntzen al diote elkarri?

4. Filmeko moduko egoeren aurrean nola joka daitekeen alternatibak proposatu.

C. Inguru soziala

Nola aurre egin talde presioari

Taldeetan sarritan izaten da TALDE PRESIOA izeneko fenomeno, zeinak taldekideak era jakin eta bateratuan pentsatu eta ekitera "behartzen" dituen. Presioak norberaren ideia eta printzipioei uko egitera behartzen duenean, prozesu negatiboa bilakatzen da, gutxiagotasun eta taldeko partaide ez zareneko sentimenduak sortarazi baititzake.

Irakur itzazue jarraian aurkezten dizkizuegun talde presio egoerak eta talde txikietan batuta, erantzun ondorengo galderei:

1. Zer egin dezakete pertsona hauek gatazka horiek konpontzeko?

2. Aurkitu al zarete inoiz antzeko egoeraren batean edo ezagutzen al duzue antzeko egoeraren bat bizi izan duen norbait? Nola erantzun duzue?

3. Talde presioa drogen kontsumoan faktore garrantzitsua dela uste al duzue? Zergatik?

4. Zein motatako talde presioak ikusi dituzue filmean?

Asteburu osoan bakarrik zaude etxean. Hiru lagun etorri eta zure etxea erabili nahi dutela diotsue, gurasoak ez daudela aprobetxatuz, neska batzuk gonbidatu, likore botilla batzuk erosi eta festa bat antolatuz. Zuk ez duzu nahi, gurasoek guztiz debekatua dizute horrelakorik egitea eta lagunak etxea haustuko ez ote duten beldur zara.

Iker koadrilako lagun bat da, osasun arazoak ditu eta ez du edaten. Jai batean, Anderrek (taldeko buruak) txapel bat dela eta edatera derrigortu nahi du Iker. Zuk ez dakizu nola jokatu.

Amiak 16 urte ditu eta Andonirekin dabil. Andoni bera baino zaharragoa da. Amaia zeharo maiteminduta dago, baina ez daki zer pentsatu. Izan ere, joan den bi asteetan, asteburuetan animatzeko, enroilatuago egoteko eta askoz hobeto pasatzeko speed-a hartzeko esaka ari zaio Andoni.

Urarekin jolasten Umezaintza Haur Eskolako haurrak

Miren LARRAÑAGA
Pili OTXOA
Lurdes URIBARRREN

Arrasateko Umezaintza Haur Eskolako hiru irakasleek 2 eta 3 urteko haurrekin izan duten esperientzia berri bat dakarkigute. Uraren jai prestatu zuten uraren erabilpena hobeto ezagutzeko, ura erabiltzen ikasteko eta urarekin jolasteko.

Esperientziaren zergatia

Haurra bere izaeran kuriositatez eta desioz beterik aurkezten zaigu edozein gauza, objektu eta elementu bitartekari delarik, bai miatzeko, ezagutzeko edota bere neurrian zientifikoki ikeritzeko.

Eskolan probokatzen edo sortzen ditugun ekintza, joko edo egoera desberdinen aurrean haurrak parte hartzerakoan, egunero ikasten du gauza gehiago bakarrik egiten. Geroz eta eskaera tinkoagoak adierazten ditu bere beharrak kanporatuz, harremanak sendotuz eta eguneroko esparruetan funtzionatzen ikasiz. Azken finean,

bere ahalmenak eta nahiak egunera-tzen agertzen zaigu.

Jokoen eta esperientzien bidez ikasten dute erlazionatzen, elkarren artean banatzen, koordinatzen eta errespetatzen, gauza berriak probatzen, irudimena lantzen eta sortzen zaizkien arazo txikiei aurre egiten.

Iazko ikasturte hasieran bi urteko haurren gelara dordoka bat ekarri genuen kristalezko kutxa batean sarturik. Behar zuen guztietan ura aldatzen genion haur guztiak neurri batean parte hartzen zutelarik. Elikatzeko kome-ni zitzaion janaria ere ematen genion; barazkiak, bereziki beretzat prestatu-tako produktuak edota beste gauza batzuk. Horrela, gehien zer gustatzen

zitzaien eta zer ez zuen onartzen ikusten genuen.

Beste hainbatetan kutxatik kanpora ateratzen genuen nola mugitzen zen ikusteko: gorantz joaten zen eta lurreko espazio zabalean nola mugitzen zen ikusten genuen. Era berean, bere kutxatik noiz eta nola irten eta sartzen zen behatzen genuen.

Horrela genbiltzala, egun batean haurrak galderak egiten hasi ziren: ea dordoka beti uretan bizi zen, non bizi zen, bakarrik ala beste batzuekin, non zeuden bere aita eta bere ama eta abar. Galdera hauek dordokari buruz zerbait gehiago jakitera eta ikertzera eraman gintuzten. Horrela, dokumentatzen hasi ginen eta liburu batzuk eskuratu





ondoren eta datu eta argazki batzuk ikusirik, itsaso handiarekin eta urarekin egin genuen topo. Eta honekin batera, nola ez, urarekiko interesa eta jakinminarekin. Horrez gain, egunerokotasunean eta edozein momentutan haurrarentzat urak duen garrantzia ikusirik eta honek eskaintzen dizkion aukerak aberatsak direla behaturik, proiektu txiki-handi bat betetzera bultzatu gintuen: urarekin jolastera, hain zuzen ere.

Elementu aberats honekin, haurrari mundu fisikoa, naturala eta soziala ezagutzeaz gain, zentzuen bidez igortzen dituen sententzioak esanguratsuak bihurtzen zaizkio era zientifiko batean. Hainbat ezaugarri eta kualitate ezagutu eta ondorioak ateratzera helten da.

Metodologia globalizatua tresna bezala erabiliz helburu, eduki eta ekintza desberdin batzuk praktikan ipini genituen. Ekintzen antolaketa eta apendizaiak era autonomo eta kolaboratzaile gisa planteatu genituen, haurren behar eta interesen arabera. Urarekin interakzio sakona eta gozatzeko ludiko bat lortzeko bidea jarri genuen martxan.

Helburuak

1- Uraren erabilgarritasuna eta funtzio batzuen aurkikuntza eta esperimenezkoak.

2- Elementu hau beharrezko eta baliogarri bezala baloratu.

3- Bakoitzaren emozio eta sentimenez jabetu motibazioaren bitartez.

4- Estimatu eta emozio eta sentimendu hauek adieraztera animatu.

5- Gorputzaren kontrolaren eta koordinaketaren lorpena, bai indibidualki, bai jokoetan.

Edukiak

Gure proiektu honetan hainbat eduki desberdin landu ditugu. Horrela, eduki horiek hiru sailetan banatu ditugu: kontzeptualak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak.

Eduki kontzeptualak

- Elementu bera: URA
Bustia..... Lehorra
Arina..... Astuna
Beroa..... Hotza

- Uraren erabilpena

Garbitzeko
Edatatzeko
Ureztatzeko
Janaria prestatzeko

Ura dela eta, gure gorputzak sententzio desberdinak nabaritzen ditu. Sententzio eta emozio horiek poztasuna eta tristura izan daitezke.

Urak jausterakoan egiten duen hotsa ere aztertu dugu.

Prozedurazko edukiak

- Urarekin ibiltzerakoan sentitzen duguna esperimendatu. Adibidez: busti egiten gabela.

- Esku trebetasuna eta koordinazioa aztertu ura manipulatzeko objektu desberdinekin ibiltzen garenean.

- Talde handietan jolasten eta parte hartzen hasi.

- Ura irakiten jartzen dugunean zer gertatzen den ikusi eta ohartarazi.

- Uraren ondorioz bizi eta sentitu izan duguna hitzez adierazi.

- Elkarrizketa batean betebeharrekoak diren formak zaindu. Adibidez: besteak hitz egiten daudenean errespetuz entzun eta hitz egiteko txanda zaindu.

Jarrerazko edukiak

- Jarrera baikorra ekintza desberdinen aurrean.

- Interesa eta kuriositatea ura manipulatu, behatu eta miatzerakoan.

- Talde handietan parte hartzeak duen garrantziaz jabetu.

- Uraren erabilpen egokiak duen garrantziaz jabetu.

- Besteek esaten dutena entzun eta errespetatu.

- Ahozko hizkuntza baloratu eta komunikatzeko bide bezala onartu.

Esperientziaren azalpena

Lehenengo harremana hitzaren bidez izan zen, elkarrizketak eginez eta geurre buruari galderak eginez.

- Zer da URA?

- Zertarako da URA?

- Zer egiten dugu urarekin?

- Fenomeno atmosferikoak kontuan hartu: lainoak, zerua, trumoiak, tximista...

- Euria eta URA

Ura dela medio egindako ekintzak ondorengoak izan ziren:

- Ura ontzi batetik bestera eramatea (tamaina eta kolore ezberdinetako botilak eta abar).

- Arbelak klarionaz margotu eta bukatzeko belaki bustiz garbitu ura erabiliz.

- Gelako panpinen arropak xaboi eta urez garbitu eta zintzilikatu lehortzeko.

- Panpinak urarekin garbitu.

- Xaboiarekin ponpak egin.

- Gelan eta kanpoan dauden landareak ureztatu.

- Egun euritsu batean kanpoko espaziora joan eta euria sentitu (aurpegian eta eskuetan).

- Txipi-txapa egin hankatxoekin putzuetan.

Azkenean uraren jaiak egin zen

Prestakuntzak

Aurreko egunean prestatu genuen jaiak. Gurasoei paper bat bidali genien zer egiteko asmoa genuen azaltzeko eta aldatzeko arropa ekar zezaten eska-

tzeko. Haurren aurrean papera irakurri eta bakoitzari bere txostena banatu zitzaion.

Jaiaren egunean denak motxilarekin etorri ziren.

Motxiletan banan-banan pegatina batekin izenak jarri ondoren bakoitzaren aulkietan eta talde bakoitzaren gelan utzi ziren. Elkarrekin uraren jai garatu behar zutenak hiru talde ziren.

Irakasle bat haur guztiekin geratu zen eta lurrean biribilean eseri ondoren, aurretik egindako ekintzak gogoratu eta gure bizitzan urak duen garrantzia azpimarratu zituen. Beste bi andereñoak kanpoko espazioa prestatu genuen. Haurrak atera orduko erabili beharreko tresna guztiak bertara atera genituen (tamaina eta kolore guztietako ontziak) eta sakabanatuta eta urez beteta utzi genituen. Apal baten gainean hainbat tresna jarri ziren: plastikozko botila txikiak eta handiak, jostailuzko ontziak, edalontzi ezberdinak, kikaratxoak, ireston-tziak, enbutuak, belakiak, ureztatzeko ontziak eta abar.

Haurrekin zegoen andereñoak jokorekin ARAUA azaldu zion taldeari: ezin zaio lagunari urrik bota.

Bat, bi eta hiru! Goazen denok urarekin jolastera!

Taldetxoka banatu ziren ontzien bueltan eta berehala hasi ziren tresnak erabiltzen: belakiekin hormak garbitzen, ontzietatik ura hartu eta hormara botatzen, ureztatzeko ontziarekin inguruko landareak bustitzen...

Andereñoak hutsik gelditzen ziren ontziak berriz betetzen genituen. Haurrak gogoz aritu ziren lanean, mugimendu dezente eginez alde bategatik bestera, orain tresna bat eta gero beste bat hartuz.

Horrela 30 minutu igaro ondoren, bukatutzat eman zen jolasa eta jolasean ikertu nahi zen ekintza.

Balorazioa

Arropak aldatzen genituen bitartean elkarrizketa sortu nahi izan genuen. Adibidez:

- Nola daude gure arropak? Bustiak?

- Zergatik ez dute jolastu batzuk?
- Jolastu dut, baina kontuz ibili naiz.

- ...

Bakoitzak zertan eta zerekin jolastu zuen kontatu zuen.

Arropa bustiak motxilan gorde genituen eta lehorrak jantzi.

Hurrengo egunean bideoan hartutako irudiak ikusi genituen. Bakoitzak bere burua pantailan ikusiz urarekin bizitakoa gogoratu zuen.

Oro har, oso pozik ibili ziren eta asko gozatu zutelako ondorioztatu dugu. Aipatu behar da, behaketa txiki baten ondoren zera ikusi genuela: ez zela parte hartu gabeko haurrik gelditu. Ondorioz, haurrentzat ura oso elementu erakargarria dela ondoriozta daiteke. Esperientzia aberatsa eta parte hartzailea izan zen. Beste ekintza batzuetan interesik agertzen ez duen haurrak ere inoren bultzadarik gabe hartu zuen parte buru-belarri.

Emandako araua ere ondo errespetatua izan zen.

Egun batzuk pasa arren, haurrak egun horretaz gogoratzen dira. Behin eta berriz eskatzen digute errepikatze-ko, urarekin jolastu nahi dutelako.

Esperientziaren ondoren beste gauza bat ere ikusi dugu: lehen egun osoan iturria irekita egoten zela, eta orain gutxiago irekitzen dutela eta erabilpena ere lasaiagoa dela. Antsietatea gutxitu egin dela esan daiteke.



Matrikulazio garaian ere, elkarlanari lehentasuna emanez

Hezibideko ikastolen Informazio Bulegoa ireki dute gurasoentzat

Hezibideko ikastolek Informazio Bulegoa ireki berri dute Arrasaten. Elkarteko lau ikastolek abiarazi dute ekimen berri hau eta helburu bakar batekin: guraso guztiei informazio zerbitzua eskaintzea.

Arrasaten ireki dute Informazio Bulego berri hau Hezibideko lau ikastolen artean. Arrasateko San Viator, San Frantzisko Xabier eta Umezaintza eta Eskoritzako Almen ikastolek, alegia. Lehenengo aldia da ikastolek elkarrekin horrelako ekimen bat martxan jarri dutela eta helburu garbi batek bultzatu horretara: guraso guztiei informazio zerbitzua eskaintzea. Hau da, ikastola bakoitzaren zerbitzuei buruzko informazioa emango dute bertan. Aurrematrikulazio garaia dela kontuan izanik, gurasoak euren seme-alabentzako ikastetxe bat edo bestea hautatu beharrean aurkitzen dira eta askotan informazio handirik eduki gabe hartzen dute erabakia.

Ekimen honen bultzatzaileek gurasoek ikastetxea aukeratu aurretik zentro ezberdinak hurbilgotik ezagutzea nahi dute. Orain arte Arrasateko San Franzisko Xabier ikastolak informazio

bulego bat ireki izan du matrikulazio kanpainaren aurretik, baina aurtun lau ikastolak lehenengo aldiz elkarrekin bildu dira. Laurak elkarrekin daude eta denek bultzatuko ekimena da hau.

Aintzane Gardoki da bulegoan informazioa ematen dagoena eta berak azaldu digunaren arabera bi informazio mota daude: bulegoan ematen dena

“Ikastola bakoitzaren zerbitzuei buruzko informazioa ematen dute bulegoan”

eta ikastoletan jasotzen dena. “Bulegoan lehen mailako informazioa ematen diet. Hemen panelak daude eta hauek informazio orokorra dago. Alde batetik, Haur Hezkuntza zer den eta ikastola hauek zein ezaugarri dituen agertzen da berauetan. Beste panel batek 6-18 urteko ezaugarriak jasotzen ditu. Eta triptikoan dagoen informazioa jasotzen duen panel handi handi bat ere badaukagu. Horrez gain, ikastola bakoitzaren informazio puntuala eskura daiteke paperezko euskarrian edota bideoan”.

Hezkuntza proiektuak, kuotak, ordutegia, aisialdirako extra-ekolarrak, udalekuak... bakoitzak daukan zerbitzuak zein diren ezagutzeko aukera ematen du informazio honek guztiak. “Bideoak hemen ikus daitezke, eta horrez gain, ikastola batek bideo gehiago ere baditu eta horiek jendeari banatzen ari gara etxera eramanez eta han ikus ditzaten”.

Informazio hori guztia bulegoan bertan jasotzeko aukera dago. Baina ikastoletara joan eta bertatik ezagutzeko aukera ere badago. “Hori da bigarren pausoa eta horixe da bultzatu nahi dena: barrutik ezagutzea ikastola bakoitzak duen proiektua, azpiegitura eta, oro har, dena”. Hori garrantzitsua dela azpimarratzen du Gardokik,

nahiz eta hasieran jendea iristen zaion zuzendariarekin edo ardura-dunarekin zita egitea eta ikastolara hurbiltzea. "Hasieran arraroa egiten zaie, zuzendariarekin hitz egitea zaila izango dela pentsatzen dutelako. Ez dela hainbesteko pentsatzen dute. *Horrela, besterik gabe, ni joan al naiteke eta ordubete kendu?* Baina kalean aukera hori badagoela entzun da eta pixkat lotsatuta etorri arren, badatoz hori eskatzera orain". Bulego honen helburuetako bat horixe da hain zuzen ere: zuzendariarekin edo pertsona egokiarekin hitz egitea eta ikastola barrutik ezagutzea.

Erabakiak hartzeko balio al du?

Gardokik dioenez "jendeak nahiko erabakita dauka seme-alabak nora eramanez eta gauza oso puntualak galdetzeraz dator: zenbat urterekin hasten diren hizkuntzak ikasten, zein ordutegi daukaten, kuotak zenbatekoak diren..."

Beraz, gehienbat bi kasu ematen direla esan daiteke. Alde batetik nora eramanez nahi dituzten konkretuki jakinda, ikastetxe bati buruzko galdera konkretuak egiten dituzte. Eta bestetik, bi ikastetxeren artean dudak dauzkatelarik bietarako zita eskatzen dute.

Bulegoa ireki berria da eta lehenengo hiru egunetan 20 pertsona hurbildu ziren. Hauetatik erdiak edo eskatu



dute ikastoletara joatea. Gardokik pozik daudela esan digu. "Lehenengo aldiz egin da horrelako zerbait eta zer izan daitekeen esperimentatzen ari gara."

Noiz arte egongo da bulegoa irekita? Ziur aski martxora arte egongo da zabalik, baina hori jendearen harreraren arabera dago. Beraien asmoa matrikula aurretik bi edo hiru hilabete lehenago irekitzea zen, jendeak informazioa hartu eta matrikula garaian ixteko. Baina badirudi aurten matrikulazio kanpaina lehenago hasiko dela eta garai horretan ere irekita izango da agian.

Informazio bulegoa Arrasateko Biteri etorbidea, 15. zenbakian dago. Astelenerdik ostiralera, goizeko 10.00etatik 13.00era eta arratsaldeko 15.00etatik 19.00etara izango da zabalik.

"Ekimen honen bultzatzaileek gurasoek ikastetxea aukeratu aurretik zentro ezberdinak hurbilagotik ezagutzea nahi dute"



Hauteskunde sindikalak

Lau urtetik behin izaten dira hauteskunde sindikalak Hego Euskal Herrian. Iparraldean, berriz, bost urtetik behin.

EAEEn, orain arte egin direnekin amaitutzat jo daitezke. Nafarroan, aldiz, ez da horrela gertatzen, gehienak uda bitartean burutuko baitira. Esate baterako, irakaskuntza publikoko hauteskundeak maiatzaren 6an izango dira.

Iparraldean, oraingoa ez da hautatzeko garaia.

Irakaskuntza ez unibertsitarioan azkeneko bolada honetan jaso ditugun emaitzak aurkeztuko dizkizuegu. Uztaileko aldizkarian Nafarroako emaitzekin batera osatuagoa azaltzea posible izango bazaigu ere, orain arteko datuak adierazgarriak direnez jarraian azaltzen ditugu.

Alde batetik, egin berriak diren EAEko irakaskuntza publikoko hauteskundeak ditugu.

Beste aldetik, irakaskuntza pribatua dugu. Nafarroan ikastetxe gutxitan egin dira eta EAEko gehienak burutuak direnez, hemen emaitzak.

Bukatzeko, ikastolen kasua dugu. Hego EHko ia ikastola guztietan burutu direnez, guztiak aipatzen ditugu.

EAEko irakaskuntza publiko ez unibertsitarioa							
Sindikatuak	Irakasle Funtzionario	Heziketa Berezia	Ikastola Publikoak	Sukaldari/Garbitzaileak	Publifikatutako Pribatuak	Guztira	
LAB	1994	14	7	12	11	1	45
	1999	16	14	9	14	1	54
ELA	1994	15	2	9	15	5	46
	1999	16	1	13	15	6	51
CCOO	1994	16	2	-	8	-	26
	1999	32	5	-	9	1	47
EILAS	1994	23	7	2	-	3	35
	1999	18	7	1	-	2	28
UGT	1994	18	1	-	3	5	27
	1999	13	0	-	3	4	20
ANPE	1994	3	-	-	-	-	3
	1999	0	-	-	-	-	0
Guztira	1994	89	19	23	37	14	182
	1999	95	27	23	41	14	200

EAEko irakaskuntza pribatua	
Sindikatuak	Delegatuak
ELA	312
CCOO	54
EILAS	44
UGT	27
LAB	23
UTEPE	17
Independ.	17
Guztira	494

HEGO Euskal Herriko ikastolak			
	EAE	Nafarroa	Guztira
LAB	105	25	130
ELA	79	6	85
Indepen.	10	0	10
EILAS	2	0	2
Guztira	196	31	227

KONTSULTA TXOKOA

Zuen kezka
planteatzeko eta
zuk ere bestean
zalantzak
argitzeko lekua
duzu.



Berriak

Bidal itzazu zure galderak edo zalantzak
irakasle euskaldunon aldizkarira

OTSAILA



Ikasleak ere "Lanordu bat akordioaren alde" kanpainan

Euskal Herriko hainbat ikasle Kontseilua aurrera eramaten ari den "Lanordu bat akordioaren alde" kanpainan parte hartzeko prest agertu da. Nafarroako Unibertsitate Publikoan egindako prentsaurrekoan adierazi zuten, beraien aportazioa ez da soldataren ordu bat ematea izango. Horren orde, asanblada informatiboak eta ekintza konkretuak egingo dituzte ikastetxez ikastetxe. Konpromezu indibidualak bultzatzeko, berriz, 5.000 pezetako bonoak jarriko dituzte salgai. Laguntza honekin Kontseiluaren Plan Estrategikoan parte hartu nahi dute, batez ere irakaskuntza arloan euskararen presentzia areagotzeko alderdian.

Gurasoentzat hitzaldiak Txingudi ikastolan

Irungo Txingudi ikastolak gurasoentzat hitzaldiak antolatu ditu. Hemen dituzue otsailerako eta martxorako prestatutako hitzaldien egun eta orduak.

Otsailak 4

Gurasoak seme-alaben autoestimua suspertzaile

Hizlaria: Elena Anabitarte, psikologa.

Otsailak 11

Familia, baloreen eredu

Hizlaria: Juanjo Villegas, psikologoa eta familia terapeuta.

Otsailak 18

Familia gatazkak: anai-arreben arteko eztabaidak.

Hizlaria: Marije Uranga, Txingudi ikastolako aholkularia, psikomotrizista eta familia terapeuta.

Otsailak 25

Drogomenpekotasunaren prebentzioa: gurasoen zeregina.

Hizlaria: Irungo Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzu Arloko teknikaria.

Martxoak 4

Haurren elikadura orekatua. Ohi-turen garrantzia.

Hizlaria: Irungo Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzu Arloko teknikaria.

Ordua: arratsaldeko 19.00etan.

Lekua: Txingudi Ikastolako bideo aretoa.

Sarrera librea.

TXINGUDI



IKASTOLA

V. CAF-Elhuyar dibulgazio sariak banatu dira

CAF-Elhuyar dibulgazio sarietan bi lan mota saritzen dira: dibulgazio-artikuluak eta dibulgazio-liburuak.

Dibulgazio-artikuluen atalean 14 lan aurkeztu dira eta epaimahaiaren arabera denek podiumean egotea merezi arren, hiruri eman diote saria:

- Lehen saria, 75.000 pezetakoa, Adelaia Umaran eta Arantxa Sarasuari eman diote "Tropikoetatik ekarritako oroigarriak" lanarengatik.

- Bigarren saria, 60.000 pezetakoa, Fernando Morillok eraman du, "Erraldoi herrena (Zientziaren alderdi ilunak)" lanarekin.

- Hirugarren saria, 40.000 pezetakoa, Asier Sarasuak egindako "Gas-teizko berdeguneak kudeatzeko geo-

grafia-informazioko sistema baten garapena" lanari eman diote.

Liburuen mailan, aurten ez da saririk banatu, nahiz eta bi lan aurkeztu. Epaimahaiak bi lan hauen kalitatea eta maila baloratu du, baina dibulgazio-koak ez direnez, ez du saririk eman.

Zientzia eta teknologiaaren dibulgazio-arloan dagoen euskarazko liburuen beharra eta zailtasunak ikusita, hurrengo deialditik aurrera sari hau beka bihurtuko da. Horrela, liburu amaituta aurkeztu beharrean, liburuaren proiektua aurkeztu beharko da eta urte beteko epea izango du irabazleak dibulgazio-liburu idazteko.

Euskara Zine Aretoetara

Tinko Euskara Elkartek bultzaturik hilabete honetan, **otsailaren 21ean, igandean, Elorrioko Arriola aretoan "Borrowrs"** filma ikusteko aukera izango da.

Iruñean **Karrikiri Elkartek** ere iaz bezala euskarazko filmak ikusteko aukera emango du. Ostiralero, pelikula berdina bi astez segidan ikusteko aukera izango da eta horrekin batera laburmetraia bat.

Iazko esperientziak arrakasta handia izan zuen eta aurten ere egitasmoari eutsi diote. Euskara eta atsedendia uztartzea da helburua eta zailtasun guztien gainetik horri ekin diote. Euskarara itzultzen diren filmak edo azpitituluak euskaraz dituztenak gutxi dira, baina eskaintza txukuna egiteko moduak lortu dituzte. Tinko Euskara Elkartek itzulitako filmak izango dira ikusi ahal izango diren batzuk. Eta beste batzuk Euskal Herrian egingakoak.

Golem aretoan pantailaratuko dira eta sarrera 500 pezetakoa izango da (1.800 pezetako bonoak ere badaude). Salgai daude Karrikiri Elkartek Xabier kalean duen egoitzak eta Xalbador, Auzolan eta Abarzuza liburutendetan.

Hona hemen filmeen egutegia:

Otsailak 5

"Errebelde baten egunkaria" filma eta Jon Andueza, Xabier Alberdi eta Aitor Agorriaren "Laugarren gelatik" laburmetraia.

Otsailak 12 eta 19

"Wallace & Gromit" luzemetraia eta Agustin Arenasen "Mateo Txistu" laburmetraia.

Otsailak 26 eta martxoak 5

"Corina, Corina" luzemetraia eta Jon Andueza, Xabier Alberdi eta Aitor Agorriaren "Bernar" laburmetraia.

Martxoak 12 eta 26

Julio Medemen "Behiak" filma eta Asier Altuna eta Telmo Esnalen "Txotx" laburmetraia.

ARGITALPENAK



LITE-

RATURA UNIBERTSALA

Ibaizabal Argitaletxea

Ibaizabal argitaletxea kaleratzen ari den Literatura unibertsaleko bildumaren azken aleak 77, 78 eta 79.ak dira. Lehenengoa Jorge Luis Borges "Ipuin hautatuak", Juan Garzia Garmendiak itzulia. Bigarrena Ismail Kadareren "H. dosierra", Juan Nari Arzallus eta Antton Olanok itzulia. Eta hirugarrena Nikolai Vasilievitx Gogolen "Arima hilak" da, Jose Morales Beldak itzulia. 1989. urtean hasitako bilduma honetan 100 liburu kaleratzeko asmoa dute eta hiru hauen ondoren, hurrengoak ere laister izango

XUXEN

Euskarako zuzentzaile ortografikoa

Eusko Jaurlaritza

Xuxen II euskaraz idatzitako testuen akats ortografikoak antzeman eta zuzentzen dituen tresna da. Euskarako zuzentzaile ortografikoa hau Interneten eskuragarri dago eta doan: http://www.euskadi.net/euskara_hizt helbidean. Euskaltzaindiak 1998ko uda arte emandako arau guztiak eza gutzen ditu. EHUko Informatika Fakultateko IXA Taldeak egin du UZEI eta Hizkiaren lankidetzan.

WINDOWS 98 eta INTERNET EXPLORER euskaraz Microsoft

Microsoft etxeak Windows 98 sistema eragilearen eta Internet Explorer 4.0 nabigatzailearen euskarazko bertsioak kaleratu ditu. Informatika arlo-etako funtsezko material hauek euskaraz izateak atek zabaltzen dizkio euskarari.

1999ko uda alderako Office 2000 (Microsoft Word, Excel eta Outlook) ere euskarazko bertsioan izango da.

TUTTI DA CAPO

Musika irakasbidea Maria Pilar Ochoa de Eribe Ibaizabal argitaletxea

"Tutti da capo" proiektu didaktikoa Haur eta Lehen Hezkuntzaren barruan musika lantzeko metodologia da. Musika irakasbidea errazteko eta bideratzeko material ezberdinak kaleratu dira maila bakoitzerako: gidaliburuak, kasetak (ipuekin, abestekin, entzuketekin, saio osoaren grabaketekin...), laminak, ipuinak, pentagramak... Ikastetxeetan nahiz musika eskoletan erabiltzeko moduko materiala da.



Kontsulta txokoa

“Behin betiko” abestia dela eta

Zenbait irakaslek galdera bera egin digute Hik Hasiren 33. zenbakian argitaratu genuen “Behin betiko” abestia dela eta. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak “Bai, euskarari!” jaialdian bost estadiotan abesteko prestatu zuen abesti hau. Irakasleon galdera honakoa izan da:

“Behin betiko abestia orain dela 10 urte inguru asmatu zuen Imanol Urbietak eta gure ikastetxean abestu izan dugu. Baina zuen aldizkarian hitzak aldatuta agertu ziren. Hau da, “tristuran eta pozean” jartzen duen lekuan “borrokan eta pakean” abestu izan dugu guk, horrela idatzi baitzuen Imanol Urbietak. Beraz, zergatik aldatu zen hori abenduaren 26ko jaialdirako?”

Egia da “Behin betiko” abestiari aipatzen duzuen aldaketa egin zitzaiola. Kontseiluak erabaki zuen aldatzea, “borrokan eta pakean” esaldiak konnotazio politikoa sor zezakeelako eta denontzako zerbait izatea nahi zuelako, inor deseroso ez sentitzeko modukoa. Bestalde, nahiz eta aldaketa hori egin, mezua mantentzen zela ikusi zuten, hau da, “Hasi etxetik eta kalera, hasi kaletik eta etxera, martxan jarri da lege berria: Euskaraz Euskal Herrian!!”.

Imanol Urbietak ez zen hitza aldatzearen alde agertu, baina bere onespenera eman zuen aldaketak egiteko. Horregatik jarri zen egilearen izenaren ondoan abestia moldatua zegoela.

Horixe izan zen, beraz, aldaketaren arrazoia.

Musika Irakasle Euskaldunen Topaketa arrakastatsua



Urtarrilaren 22an Donostiako Irakasle Eskolan 125 musika irakasle bildu ziren. Donostiako Kontserbatorioko Musikologia katedrak, Udako Euskal Unibertsitateak eta Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatutako I. Topaketa hau arrakastatsua izan da. Antolatzaileek uste baino jende gehiago bildu zen.

Egun osoan zehar musikari lotutako arlo ezberdinez hitz egin zen eta hainbat irakaslek euren esperientziaren

berri eman zuten. Ondoren, eta hau da garrantzitsuena, aurrerantzean elkarrekin lan egiten jarraitzeko batzordeak sortu ziren. Musika irakasleengan dagoen bakartasun sententzia hori hautsi eta hemendik aurrera harremanak estutzeko bidea ireki nahi izan du topaketak. Musika Irakasle Euskaldunen Batzarra izenez ezagutuko da aurrerantzean topaketa honen ondorioz sortuko den talde edo erakundea.



Idazkera ona, txarra, ulergarria...

Grafia eta idazkera aztergai



Iruñe IBARRA
Psikologoa eta grafologoa

Irune Ibarra psikologoa eta grafologoaren eskutik idazkeraren inguruko kezka, arazo eta hausnarketak irakurtzeko aukera duzue orriotan. EHUko Bilboko Irakasle Eskolako Psikologia irakaslea da eta Grafologia arloan lan eta azterketa ugari egin. Bere hausnarketa eta ondorioak gure eskura jartzera doa, bide batez idazkera dela eta sortzen zaizkigun kezkak argitzeko. Datozen aleetan ere jarraipena izango du orain hastera doan gai honek.

Euskal Herrian grafologiaren ezagutzak hezkuntzan txertatu beharra

Txina, Japonia eta Egiptoko antzinako kulturetan intuitiboki jabetu ziren idazkera pertsonon nortasunaren islada zuzena zela. XVII. mendetik hona, batez ere Europan (Frantzia, Alemanian, Suitzan, Italian...) eta Estatu Batuetan Grafologiaren teknikaren bitartez eginiko ikerketa serioek ere gauza bera baieztatzen dute: adimen mota, borondatea, portaera eta osasun fisiko-psikologikoak azaltzen dutela eskuizkribuek. Era honetan, idazkera ordenatu eta txukun batek adimen edo buru ordenatua erakusten du: "i"ren puntuak bere gainean jartzeak arreta gaitasun ona, lerroak horizontal mantentzeak erantzukizuna eta autokontrola eta abar.

Crepieaux Jamin, Max Pulver, Ludwig Klages... grafologo aintzindariak utopia irudituko zitzaizkien egunen batean letra-molde, espazimendu, makurdura eta abar aldatzeak pertsonaren izaera aldatzea ekar dezakeenik. Bada, grafoterapia klinikoki Sorbonnan, Claude Bernard Institutuan frogatu zuten, 1929 eta 1931. urte bitartean, Lehen Mundu-Gerraren ondorioz portaera-nahasketak zituzten haurrekin, benetan emaitza arrakastatsuak lortuz.

Fenomenoen eta egoera psikolo-

gikoen bihurtarritasuna deritzona existitzen da: fenomeno psikiko zehatz bati aurkako jarrera edo ohitura kontrajartzen badiogu, izaerako akats, desoreka, konplexu psikiko edo egoera gaixo bat motibatzen duten zergatiak gainditzea lor daiteke. Beste hitz batzuetan: eskuaren bitartez orri batean jarriko diren mezuak bidaltzen ditu burmuinak. Burmuin honi eskuaren bitartez keinu grafiko zuzenak erakusten bazaizkio, burmuinean onerako eragingo du. Beraz, idazkera batetik larrimina, inhibizioa, arreta eza, antolaketa eza... baztertzen baditugu, gure burmuin eta bizitzatik ere aldendu egingo ditugu.

Azken finean, terapia bidez zuzendu baino aurrea hartzeak abantaila gehiago dakartzala eta, idazkeraren ezaugarri positiboak eskolatzearen lehen urteetan lantzea oso mesedegarria izan daiteke. Idazkera "txarreko" ere Grafologiak badu zer esanik. Berlingo Minna Becker alemaniar grafologo ospetsuak zera zioen 1926ean: "hezitzaile eta grafologoek batera lan egin beharko lukete, haurren mentalitatean hari zuzentzaile bat aurkitu eta honen eskolatzea eta hezkuntza errazteko. Idazkeraren metodoetako batek ere ez du erabili oraindik grafologiako aurkikuntzarik haurrak idazkeraren ikasketa errazago buru dezan. Gainera idazkerak barometro baten zerbitzua

eduki behar du hezkuntzan: idazkera txarra denean, azterketa grafologiko batek aurkitu beharko du zergatia”.

Euskal idazkera euskal curriculumean

Grafologiaren ezagutzak hezkuntzan txertatzeko eman beharko litzatekeen **lehen urratsa**, nire ustez, egun Euskal Herriko eskoletan irakasten den grafia mota (moten), idazkera-aholkuen eta “idazkera txarrekin” egiten denari buruzko ikerketa bat, **diagnostiko bat** egitea litzateke.

Ondoren, bigarren urrats batean, bateratasun eta normalkuntza baterantz jo beharko genukeela iruditzen zait, bai grafia harmoniko bat lantzeko orduan, bai idazteko-aholkuetan eta bai idazkera jokatzeko unean.

Lore Erriondo, Xabier Garagorri eta Xabier Isasik idatzitako “Hezkuntzaren Normalkuntza” liburuan, Jose Migel Barandiaran eta Lawtonen ikuspegi antropologikoa eta jakintza-arlo edo zientzian oinarritzen den ohiko ikuspegi akademikoa uztartuz, “Hezkuntzaren Normalkuntza”n berezko



euskal curriculumaren ardatzak eta edukiak aukeratzen dituzte. Ardatzetako bat, lantzen dihardugun gaiari dagokiona da; nola komunikatuko naiz neure antzekoekin? Hizkuntza idatzia eta honen barruan “euskal idazkeraren” atala oraindik lantzeke dagoen arlo bat da.

Lan hau guztia burutu gabe egonik ere, adreilu batzuk jartzen saiatuko naiz, honetarako aldameneko herrialde batzuetan grafologiaren eta orokorrean idazkeraren arloan egin diren ikerketak kontuan hartuz (beti egokitu ahal dira bertako behar, egoera eta landu nahi diren balioetara). Aldameneko herrialdetako ikerketak, bai, zeren eta Lore Erriondo, Xabier Garagorri eta Xabier Isasiren “Hezkuntzaren Normalkuntza” liburuko pasarte bati jarraituz, “Egia da, Euskal Herrian bertan soilik sortutako eta kanpoko eraginik gabeko jatorrizko adierazpen kulturalik gaur egun ez dagoela, Frantzia, Espainia eta beste herrialdeetan ez dagoen bezala. Herriak ez dira inoiz isolatuta bizi, eta gaur egun oraindik gutxiago, elkarrekin harremanetan baizik. Harreman horietan batak besteari maileguak egiten dizkio, elkarrekin trukatu.” (28. orrialdea).

Lehenengo urratsa, hots, Euskal Herriko eskoletako idazkeraren inguruko **diagnostikoa** egin gabe egonik ere, Ikastolen Elkarteko 1995.eko “Ikastola” aldizkariaren 39. zenbakiko “Kaligrafia berriro?” artikulua erabiliko dut orientabide gisa, oso inkesta mugatua eta partziala dela jakinaren gainean egon arren. Euskal Herriko 15 ikastoletan irakasle-pedagogoei egini-ko inkestaren arabera, idazkerarekiko dauden kezka eta iritziak jarriko ditut haria askatzen hasteko, nire burutape-
nak tartean sartuz.

Euskal Herrian gaur egun dagoen/dauden grafia mota/k eta idazkera-aholkuak

Zelako idazkera mota eta idazkera-aholkuak jarraitzen dira Euskal Herrian? Hauek dira aipatutako artikuluan jasotako erantzunetako batzuk:

- “Idazkera lantzeko metodo bere-
tsuak erabiltzen dira gaur egun, Haur Hezkuntzatik hasi eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan (3-8 urte). Hortik aurrera kaligrafiak ez du leku-
rik ikastola gehienetan. Kasu berezie-
tan bakarrik saiatzen dira alor hori
lantzen”.

- “Ulergarritasuna da helburua. Gu ez
gara letraren estetika epaitzen hasiko,
polita den edo itsusia den begiratzen
hasiko, baina ulergarria izan behar du”
dio Oiongo ikastolako Arantxak.

- “Idazkera prozesua izugarri garran-
tzitsua da gure kulturaren barruan eta
horregatik hasten gara Haur Hezkun-
tzatik norabidetasuna lantzen, trazuak
eta letrak nondik nora idatzi behar
diren ikasten. (...) Garbi dago hizki
lotuarekin hasi behar dela, nahiz eta
erabiltzen ditugun testu idatzi gehie-
nak inprentako grafiarekin edo hizki
askearekin idatziak izan. Horretan
ikastola gehienetan bat gatoz eta hori
efikaziaren izenean eta ulergarritasuna
lortzeko helburua kontuan izanik”.

- “Ikastolaz ikastola egin zen inkes-
taren arabera, 10 urte arte lantzen da
idazkera estandar hori eta gero hasten
dira hizkiak pertsonalizatzen eta ondo-
rrioz, askotan, zabartzen”.

- “Ezin gaitzek, noski, garai bateko
kaligrafiara itzuli, baina idazkera pau-
satuago batera itzuli behar genukeela
garbi dago”. Idoia Astiz, Altsasuko
Iñigo Aritza ikastolako andereñoa.

- Zarauzko ikastolako Maite Saenzek
dio: “Nik uste dut lehen zikloko (6-8
urte) irakasleek beren letra utzi eta
ikastola barruko idazkera ikasi behar
dutela eta goiko zikloetan ere gero eta
kontzientzia handiagoa dago kaligra-
fiaren beharraz, nahiz eta beti mezua
izan garrantzitsua eta ez grafia”.

Iritzi hauek eta zenbait irakaslerekin
edukitako elkarrizketak entzun ondo-
ren, nire inpresioa da eskola bakoitzak
eta sarritan irakasle bakoitzak letra-
eredu eta idazkera-aholku nahiko per-
tsonalak ematen dituela. Baliteke,
eskola askotan idazkera orokor eredu
bat egotea, borobildua eta lotua dena,
eta irakasleek ikasleei ematen dizkien

aholkuen artean ere bateratasun bat egotea. Adibidez, ezkerreko bazterki bezala haurrak bere bi atzamar uztea komeni da, idazkera ulergarria izan behar da... Baina bateratasuna zentrotik zentrora asko aldatzen dela iruditzen zait eta sarritan idazkera-aholkuak zer esan nahi duten jakin gabe ematen direnaren inpresioa ere badaukat. Jakiten al da idazkera borobilduak eta lotuak zein esanahi daukan? Idazkera ulergarria zer den? Idazkera zehatz baten bidez zer bultzatzen den? Aholku bat emateak zein eragin eduki dezakeen ikaslearen nortasunean?...

- Liliane Irigoien, Seaskako pedagogoak zera zioen: "Irakasleei (ere) idazkera neutro bat eskatzen zaie, bestela irakaslez aldatzen diren bakoitzean idazkeraz aldatu beharko lukete".

Azken esaldi honekiko nik egiten dudana hausnarketa ondokoa da:

1. Ez dago idazkera neutrorik, idazkera mota bakoitzak zenbait ezaugarri erakusten ditu, idazlearen nortasuna, idazleak parte hartzen duen herrialdearen balioak, garaiaren pentsamoldeak... (hizki-eredu eta idazkera-aholku desberdinak ematen dira Alemanian, Eiren, Belgikan... eta mendez-mende ere (XIX. mendeko idazkera-ereduak eta arauak, XXI. mendekoekin ez dira bat etorriko). **Zein balio transmititu nahi ditugu idazkeraren bidez?**

2. Irakasleei eskatzen zaien idazkera "neutro" hori zenbat eta harmonikoa eta bateratuagoa eta bertakoagoa izan, aurrea hartzearen lana era koherentean, konfidantzaz eta aholku beretsuekin burutuko lukete irakasleek. Kontuan izan idazkera harmoniko bat irakasteak haurren egokitzapena eta garapen psikologiko positiboa erraz dezakeela. Gainera hurrek irakaslearen, gurasoen, lagunen idazkera eta sinadurak kopiatzeko joera dutela kontuan hartuta, zenbat eta eredu positiboagoa izan aurrean, orduan eta eragin positiboagoak edukiko ditu haurrengan.

3. Dena den, ez ahaztu ikasleei grafia-mota eta idazkera-aholkuak eskaini (ez inposatu) arren, ikasle bakoitzaren



idazkerak bere nortasunari, kanpo-faktoreei eta denboraren jarioari jarraiki, idazkerak ezaugarri propioak hartuko dituela.

Zer gertatzen da "idazkera txarrekin" gaur egun hezkuntzan Euskal Herrian?

Ikastolen artikuluarri jarraituz:

- "Haurren sormena hiltzen zuen... (...) Eskola antzu hori desegin zenean, kaligrafia ere ehortzi egin zen hondakinen artean, baina goiko mailetan bereziki arazo larriak sortu dira idazkerarekin: DBH eta DBHOko irakasle batzuk ez dira ikasleen letrak ulertzeko gauza".

- "Nik uste dut Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (6-8 urte) ez zaiola inoiz idazkerari garrantzirik kendu. Beste-

"idazkeraren ezaugarri positiboak eskolatzearen lehen urteetan lantzea oso mesedegarria izan daiteke"

rik da goiko mailetan. Edukiari soilik begiratu diote eta nik uste dut berriro kaligrafiaren beharraz ohartzeko hasiak garelara", Maite Sanzen hitzetan, Zarauzko ikastolako ikasketa burua.

- Kaligrafiari buruzko gogoetei buruz, Altsasuko ikastolako irakaslea den Idoia Astizek zera zioen: "Ez da orokorki eta zehatz-mehatz eztabaidatu dugun gai bat, baina orain hiru urte (1992an) lehen zikloko irakasleok idazkera eta aurre-idazketarako zenbait metodo aztertu genituen eta halaber antzinako idazkietan erabiltzen zituzten grafema ezaugarriekin konparatu. Oso gauza bitxiak ikusi ahal izan genituen, baina horrek ez gintuen kaligrafia egitearen aldeko jarrera hartzea behartu".

- "Erdibide baten beharraz hasi dira hitz egiten. (...) Pedagogo eta irakasle askok kaligrafiari berriro garrantzia ematearen premia aipatzen dute".


- "Leku batzuetan idazkera lantzen duten bitartean, kaligrafia ariketak tartekatzen dituzte (adibidez, Ander Deuna ikastolan)".

"Zenbait kasutan azterketak zuzentzeari uko egitera iritsi dira".

Iritzi hauek ikusita, badirudi ikastola batzuetan kaligrafia berriro egitearen aukera planteatzen ari direla. Somatzen dudana zera da: idazkera "txar" baten aurrean irakasleek ez dute jakiten zer egin, zein tekniktara jo eta zein aholku zehatz eman. Borondatea egoten da, baina aholku ez oso positiboak edo hankasartzeak ere egin ditzakete konturatu gabe eta inolako asmo txarrik gabe (adibidez, letra



erakutsi nahi ez zuen bere idazkeraren zati bat. Batez ere, idazkortza gaizki hartzearen ondorioz idazten zuen honela).



Idazkera "txarra" duten ikasleek euren aldetik zer egiten dute, zein pentsamendu eta portaera lantzen dituzte?

Nik bildutako esperientzien arabera, berridatziak egiten dituztenak asko dira, eta irakaslearen edo "idazkera ona" duen ikaskidearen idazkera kopiatzea beste irtenbideetako bat izaten da. Soilik ordenagailuarekin idatzi edo plantillak eta erregelak erabiltzen dituztenak ere badaude. Ikasle batzuk letra larriz idazten hasten dira, besteek oso idazkera handietara jotzen dute eta letra guztiak banatzea hautatzen dutenak ez dira gutxi izaten.

Noraezean egonda hartzen diren erabaki hauetako zenbait kaltegarriak izan

"Kontuan izan idazkera harmoniko bat irakasteak haurraren egokitzapena eta garapen psikologiko positiboa erraz dezakeela"

daitezke pertsonaren osasun psikologikorako. Oro har, zentzurik eta helbururik gabe idatzi eta idazkera hobetzea ez lortzeak idazkerarekiko (eta irakurketa-rekiko) sentsazio edo aingura negatibok sortarazi ahal ditu, etsipena-frustazioa ere ager daitekeelarik.

Erregelarekin idazteak (makurdura berdintzeko adibidez) obsesioak agertarazi ahal ditu, orri milimetratutan idazteak larrimina sortu ahal du, letra guztiak maiuskuletan idazteak nerbio-sistema ahul dezake, letra guztiak eteteak komunikazio zailtasunak garatu edo nabarmen ditzake eta abar.

Idazkera aldatzea erraza delaren sinesmena ere zabaldua dago. Zenbaitetan esan digute: "hobetu letra txar, kaskar, petral, pattal, trakets, ulertezin, zikin, sasi-letra hori", "egin ezazu idazkera polit, on bat!" Erraza delakoa! Hasteko, haur batek (eta helduak ere) kasurik gehienetan ez du jakiten zerk bihurtzen duen bere idazkera "txar", hau da, zergatik den bere idazkera "txarra".

Eta zergatia jakiten den kasuan (adibidez, oso idazkera txikia dela), pertsonak ez daki urrats hau zelan eman, zein bide hartu. **Pertsona baten idazkera aldatzea erraza izan daiteke baldin eta "idazkera txar" bilakatzaren duten faktoreen diagnostiko on bat egin, faktore horiek ulertu eta denbora batez helburu zehatzak lantzen badira.** Adibidez: lerroen horizontaltasuna landu hilabetez, hizkien neurria hiru milimetrotara handitu beste hilabetez...

Aurrerago, aipatutako **bigarren urratsa** lantzeari hurrengo alean ekingo diogu: idazkera harmonikoak ahalbidetzen. Beti ere beste herrialde batzuetan Grafologiaren eta Psikologiaren ekarpenak hartuko ditugu abiapuntutzat. Euskal Herriko egoerara egokitu eta esperientzia berri oro sartzeko helburuarekin.

Iruñe Ibarri idazketaren inguruan edozein galdera edo kontsulta egin nahiko bazen, gurekin harremanetan jar zaitezke.

guztiak banatzeko esan...). Beraz, ikastolen kasuan (eta beste ikastetxeetan egoera antzeko dela iruditzen zait) ez dago batere argi "idazkera txarrekin" zer egin.

Irakasleek maizen aukeratzen duten irtenbidea **kaligrafiazko koadernoetara** jotzea izaten da. Egun, merkatuan dauden kaligrafiazko koaderno hauen azterketa sakonagoa egin behar ko litzateke, baina zenbaitzutan aurkitu ditudan ezaugarriek ez dute laguntzen idazkera hobetzen, haurrak ez baitu jakiten bere idazkeran zehatz-mehatz zer landu edo aldatu behar duen. Gainera, berauetan irakasten den grafia mota ere ez da grafologiaren ikuspuntutik komenigarriena izaten. Lotura faltsuak (collage eta lokarriak) eta letra zatikatuak bultzatzen dira, zentzurik gabeko kiribil ugari, hizkien hasierako "antenak"...



Ni neu ez naiz kaligrafiaren aldekoa, honek duen zurruntasun, ornamentazio eta kopiaren kutsuarengatik, baina bai idazkera zaintzearen aldekoa, antolaketa eta ulergarritasuna bereziki. Norbera bere idazkerarekin gustura egotea garrantzitsua dela iruditzen zait, gainera.

Idazkera txarraren konplexu antzeko bat duten pertsona askorekin egin dut topo. 10 urteko Urkok bere koadernoak erakusteko esaten ziotenean, lotsatuta, ez zuen erakusten. (Begiratu Urkok

zer, orietatik aurretik

ZAZPI saila

aukera ez da zaila



eta beste 14 titulu...

ERIKERIKATE



argitaletxea